



uk

203. zenbakia / 2011ko urriaren 24a

beharsarea.net

getxon lana euskaraz


Duela 5 hilabete martxan jarri genuenetik...

- 135 lagunek haien burua eskaini dute hainbat lan egiteko: begirale, zaintzaile, eskola partikularrak emateko, tabernari...
- 23 lagunek lana eskaini dute beharsarearen bitartez
- 1.907 lagunek 3.640 bisita egin dituzte (guztira 25.866 orrialde), zu horien artean zaude?
- Facebooken eta Tuentin ere gaude



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
 ERREDAKZIOA: Zubereroa Iturburu, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Fredi Paia, Algotako Bertsio Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
 FILMAZIOA: Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

<p>TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111</p>	<p>Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du</p>
<p>Bizkaiko Foru Aklundia Diputación Foral de Bizkaia Kultura Saila Departamento de Cultura</p>	

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Itxartu martxa.
6. FACEGUK. Zer egin beharko litzateke Leioako Avanzadagaz.
7. LEHEN ETA ORAIN. Areetako Maritimoa.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Patxi Larrazabal.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Herri-panelak.
28. ARGAZKIA. Muruko putzua hilabete geroago non dago?
30. BERBETAN. Aritz Gardoki eta Igor Uribe.
34. FOTOGRAFIA. Ekoguneko Argazki Lehiaketa.
40. SAKONEAN. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Bertsolari filma.
43. MUSIKA. Zuzen-zuzenean.
44. LIBURUAK. Auzolanaren kultura.
45. KIROLAK. Dimas Ramos.
46. ELKARRIZKETA. Jon Ander Alcalde, garagardogilea.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Pikillo piperrez betetako antxoa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Getxoko errefuxiatuak Parisen (Versalles), Parisen.
54. AITORMENAK. Maria Rivero.

Azala: Uribe Kostako Mankomunitatea


www.ukaldizkaria.biz



30 A. Gardoki / I. Uribe

Berbetan

Sistemaren arazoei erantzuteko okupazioa zilegi dela defendatzen dute okupazio mugimenduko kideek.



11 Patxi Larrazabal



54 Maria Rivero

Clio Industrial 19 EURO egunero

Kango luzea 35 EURO egunero

Kango 25 EURO egunero

Lleioa RENTACAR
 bilgailu-aloakirua

Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
 HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
 Tf. 94 480 46 02

Armando Llamosas

> arkeologoa

Zer dira txabolatxo horiek!?

Algortan aipatzen badugu *malakate* hitza, guztiek jakingo dute zeri buruz ari garen: Malakate plaza eta bere *malakate* oso ezaguna da-eta. Aitzitik, galdetzen badiogu zertarako balio duen, edo zer den...

Malakate hitz horren atzean bere uneko azpiegitura-lana erraldoia dago. Izan ere, *Elo-rrietako Ponpa-etxearen* zati dira. Betidanik hiriak oso osasungaitzak izan badira ere, XIX. mendekoak guztiz jasanezinak ziren. Populazioa, industria iraultzari esker, asko handitu zen; zerbitzuak, ordea, ia-ia Erdi Arokoak ziren. Higijene eta Saneamendu ezak, eri larriak errazten zituen (tifusa...). Itsasadarra eta alboko ur-bideak kloaka natural bihurtu ziren. Bizilekuak, lan-baldintzak... denak osasunaren kontra egiten zuen. Aro horretako *higienismoak* uste zuen baldintza horiek moteldu behar zuela. *Higienismo* horren eragina oso garrantzitsua izan zen XX. mendeko hiri-azpiegituren sorreran.

Bilboko udalak konkurtso bat egin zuen, eta Recaredo de Uhagonen proiektuak irabazi zuen: Bilboko ur beltz guztiak Elorrietan metatu, eta hortik hango ponparen medioz, itsasora, urrun, Getxoraino. Lan erraldoia eta aitzindaria bere aroan, duda barik, orduko Guggenheim. Behin funtzionamenduan, (1900 inguruan) urte gutxian bere onurak bistan zeuden; osasun txostenek diote infekzio-gaixotasunak oso murriztu zirela. Horregatik, beste estatuko hiri batzuek ere ideia kopiatu zuten.

Elorrietatik Getxora 10 Km baino gehiagoko tutua. Tutuak igoerak saihestu zituen, ponpak gutxiago lan egiteko, hortaz, Getxon oso sakon daude. Izan ere, azken zati horretan tunel bihurtzen dira, eta *malakateak* tunelaren erregistroak besterik ez ziren, hau da, horretatik ibiltzeko, konpontzeko... (gure oraingo estoldak bezala). 5 erregistro egin zituzten, 5 *malakate*: Ollarretxe kalean; Malakate parkean, Bilbo-



ko armariakaz; Andra Mari kirolegegi atzean; Galeako Golf bano lehen, sastrakaz estalita; eta tutu irteera dena, *Tunel-bokan*, hondartzan. Txikiak geratu zirenean, beste erabilpenak ere izan zituzten, besteak beste azken gudako babesleku. Politikak dira, umilak, eta diskretuak: garita harriz eta adreiluz eginda, bata armariak, guztietan gorri eta zurizko materialaren nahasketa da dekorazio osoa.

Gezurra eman arren, *malakateak* babestuta daude 1994an Eusko Jaurlaritzak babes legala eman zien ponpa-etxeaz batera. Hala ere, eta babesa soilik nahikoa ez dela adierazteko, Golf ondoan dagoena

galdutzat har daiteke, eta Ollarretzekoa bidean dago. Besteek, parkeetan edo itsasertzean, arrisku gutxi dute, baina guztiz utzita daude. Gainera, *Harino Panadera* bota ondoren, Getxon industria ondarea ia-ia ez dago, *Bizkaia Zubia* eta *malakateak*, baino ez (biak azpiegiturak).


Getxoxtar gehienek ere ez dakite malakatez atzean estatuko ingeniari-tza lan erraldoietako bat dagoela. Orain Bilboko ponpa-etxerako planak badaude, agian berriz Bilboko eragina Getxon nabaritutako da, bitartean hor egongo dira gure *malakateak*, eta hor getxoxtarrek eta bisitariek galdetzen, zer demontre txabolatxo dotore horiek. ○

gu geu

Konferentziaren azken oharrak

Lehenengo pertsona singularrean egingo dut berba UK-ko pluralaren sentipenak plazaratzeko erabiltzen dugun tartetxo honetan. Izan ere, Donostian gerraren etorkizunaz berba egiten duten bitartean, staff-ean agertzeko azken zenbakia heldu zait. Nazioarteko izen handi bakezaleek, Europako herri zahar baten etorkizunean aldaketak iragarri dituzte. Pozez hartu dugu mezua hegazkinak ekarritakoen mezurik behar ez badugu ere, herria bide onetik doala jakiteko. Berbaz berba Getxo, Leioa zein Lemoiz euskaratik eta euskaraz eraikitzen jarrituko dugu.

Herriaren aldizkaritik, herriaren etxera egingo dut salto, aldaketa niretzat ere; baina 15ean behin UK-ra begira jarriko naiz falta barik, ea gehien estimatzen dudana kazetak herri aske baten barri ematen duen. Konferentziako azken oharra Martikoengan uzten ditudanentzat: lasai, egurre emoten eta afarietan agertzen jarrituko dut! Badaude aldatu behar ez diren gauza asko; gura duzuenetako badakizue non nagoen. Besarkada beroa!

UK-ko lantaldea

UNBE, 2011KO URRIAK 12

Hartu motxila eta aurrera...! Urteroko hitzordua da Algortako Ixartu Mendigoizale Taldearen Ibilaldi Neurrua. Urriaren 12an egin zuten XXIX. a eta 915 lagunek parte hartu zuten ibilbide luzean, 16 kilometrokoan, eta 394 gaztek 6 kilometrokoan, beste 385 pertsonak lagunduta. Antolatzaileakaz batera 1.787 pertsona elkartu ziren, parte-hartzaile marka guztiak gaindituz. Rita Eizagirre Gamiok eta Joseba Gorostola Iturraldeek irabazi zuten ibilaldi nagusia. Laburra, berriz, Olatz eta Eunate Etxebarria Bilbaok irabazi zuten. ○ / Argazkia: Asier Mentraka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Ilatzi galdera **gure facebook-en**, eta zeure partez luzatuko dugul!

Zure ustez, zer egin beharko litzateke Leioako 'avanzada'-gaz?



Leioa

Yolanda Saiz

> lore-saltzailea

Lan egitera bakarrik etortzen naiz Leioara, beraz, ez dut avanzada sufritzen. Estaltzen badute, ondo, baina ez dut gura kaleak oinezkoentzat bakarrik egitea. Tabernentzat agian hori ondo egongo da, terrazak jarri ahal dituztelako, baina beste dendarioi ez datorkigu ondo!



Leioa

Aitor Martinez

> fisioterapeuta

Bere garaian txapuzta egin zuten, beraz, ez zait ideia txarra iruditzen avanzada estaltzearena. Batez ere gauetan zarata handia sortzen duelako. Dena den, nire ustez auzokideen artean galdetu beharko litzateke ia zer gura duten.



Lamiako

Arantza Hormaetxea

> Eroskiko langilea

Bai, estali behar da. Ez dakit zehatz-mehatz zelan egin daitekeen, eta badakit agian ekonomikoki ez dela momenturik onena, baina zer edo zer egin behar da. Beste leku batetik bideratu beharko litzateke, egun avanzadak herria bitan banatzen duelako, eta herria batu beharko genuke.



Leioa

Jesus Maria Lozano

> jubilatua

Urte askotako borroka da avanzada estaltzearena. Batez ere zarata da txarrena; auzokideek leihoetan obrak egin dituzte, baina alferrik. Estaliko bagenu, boulevard oso polita geldituko litzateke. Bestela, herria oso ondo dagoela iruditzen zait.



Goierri

Jaione Peña

> okindegiko langilea

Konponbidea eman behar zaio arazo honi lehenbailehen. Ezin da utzi dagoen moduan, lurperatu beharko litzateke guztiz. Izan ere, arriskutsua da oinezkoentzat. Haurrak baloiagaz olgetan ibiltzen dira, eta ez da batere segurua.




Leioa

Ana Ortega

> langabetua

Estali beharko litzateke. Proiektua orain dela hamar urte inguru egin zen, baina Udalak ez du aurrera eroan. Dirua jarri dute aitzakia legez, eta eskumena Diputazioarena dela. Baina konponbidea eman behar zaio, herria bitan zatitua dagoelako, zarata sortzen du e.a.



[lehen]

GETXOKO UDAL LEIURUTEGIA



[orain]

ASERMENTYAKA

Iraganez doa denbora* beti / MARITIMOA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > portua yatez gainezka



2011ko iraila, Kirol Portua (Getxo)

Testua: **Josu Arroyo** / Argazkia: **Asier Mentxaka*** Doinua: *Euskal Herriko lur maite hartan*

Denok negarrez hasi gintezke, eta amaitu barrezka. Umorez hartu liteke edo amorruez egin protesta. Luxua edo heldu ezina, bizipoza ala kezka. Errealitate kontrajarriak, elkarrengandik iheska. Krisia denon ahotan eta portua yatez gainezka.

Begibistan da hemen batzuek buruan zer darabilten; aspaldi daude gure herria euren gogora aldatzen. Lehenak ez du ezer balio, iraganak ez du saltzen. Elitekoak izan beharrak dena du justifikatzen. Hamaika yate geldi-geldirik elkarri lekua kentzen...

Masta guztiak zerura adi, zein baino zein luzeago. Esango nuke leku berean egon direla luzaro. Getxoren ikur, askoren ustez; uste ustela zeharo! Beste herri bat bada gurean, horiek baino lehenago. Eta erabat galdu aurretik, mugitu beharra dago!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



Udalak erosiko du 200.000 euroren truke

kukullaga > azkenean ez da kaleratzerik izango

EHNE-Bizkaia, Berangoko Udala eta herri-mugimenduari esker, Kukullaga Goikoa baserriko adineko baserriar biek bertan bizitzeko eskubidea izango dute, bizi artean. Mailegu-emaileagaz negoziaketetan ibili ostean, azkenean Berangoko Udalak 200.000 euroren truke XVII. mendeko errota erosteko aukera izango du (erostekotan, 2012ko martxoan baino lehen ordaindu beharko du). Etorkizuan,

nekazaritzagaz lotutako jarduerak hartuko ditu Kukullagak. EHNEko kideek Berangon jasotako elkartasun uholdea eskertu, eta horrelako egoerak ekiditeko neurriak hartu behar direla azpimarratu dute: *“Erakundeek konponbideak bilatzen parte hartu behar dute, eta bankuek malguagoak izan behar dute, horrelako egoeretara berritoki ez gaitzen”*. ○

Durangoko Azoka > Galizia da gonbidatua

Galizia izango da aurtengo Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren kultura gonbidatua. 46. edizio honetan, sortzaile euskaldunek eta galiziarrek hainbat ekimen gauzatuko dituzte alkarrengatik, Culturgal elkartearen bidez. Halaber, Azokaren kartela aurkeztu dute Gerediaga elkarteak lagunek. Lehiaketara aurkeztutako 28 lanen artean Cristobal Aguilo Dominguez murtziarrak diseinatu

duena aukeratu dute. Antolatzaileen arabera, lan honetan Azokaren osagai nagusi biak uztartzen dira: liburu eta diskoa. Era berean, Topatu atariak sortutako Gazte Sorkuntza gunearen bidez, gazteek eurek sortutako poesiak, ipuinak, animazioak, abestiak, fanzineak edo artelanak plazaratzeko aukera izango dute. Horretarako, azoka@topatu.info helbidera idatzi beharko dute. ○



Abenduaren 4tik 8ra ospatuko da



Xarma taldeak egin du aurtengo abestia

ikasle eguna > Villabonan azaroaren 5ean

Ikasturtea hasi eta urtero legez, Euskal Eskola Nazionalaren aldeko Ikasle Eguna antolatu du Ikasle Abertzaleak-ek, Ikasleen Nazioarteko Egunaren harira. 11. edizio honetarako hitzordua Villabonan (Gipuzkoa) jarri dute, azaroaren 5ean. Goizean goiz ikasle topaketak egingo dituzte gazteek. Eguerdian, herri-bazkariaren txanda helduko da, eta arrastian, besteak beste, ikasle aldarri-

kapenez betetako kalejira egingo dute. Gaualderako, ekitaldia eta kontzertuak antolatu dituzte. Ikasleek azpimarratu dutenez, *“milaka ikasle biltzen dituen egun honek bizi dugun erasoaldia salatzegaz batera, geure eskubideak aldarrikatu eta ikasle kolektiboa indartzeko balio behar du”*. Aurtengo kantaren izenburua “Libre” da eta Xarma musika taldeak sortu du. ○

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

saiazgetaria

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143



ERANDIOKO EUSKARAZ ZERBITZUA

HAIKU LEHIAKETA

(CONCURSO DE "HAIKU"S)

**"Haiku" bat hiru lerroko poema txikia da:
lehen bost silabakoa,
bigarrena, zazpikoa
eta hirugarrena, berriz ere, bostekoa
(5-7-5)**

Ez du titulurik, ez errimarik, eta askotan puntuazio markarik ere ez.
Hitzak dira protagonista, bestelako apaindurarik gabe

*"Merkealdiak.
Fluido legeari jarraiki,
bete da saltokia."
Josetxo Azkona*

Oinarriak eta informazio gehiago:
www.erandio.net

euskara@erandioko-udala.net
944890128

Aurkezteko azken eguna: 2011-11-11
Non: haiku.lehiaketa@erandioko-udala.net

Sariak: liburu sorta eta *tablet* bat

ERANDIO ELIZATEA UDALA

BFA DFB
Bizkaiko Foru Akademiak
Diputación Foral de Bizkaia
Euzko Lehen Kulturaren Departamentua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Euzko Lehen Kulturaren Departamentua

俳句



"Pertsona bakoitzeko 80 gramo indaba botatzen ditugu, baina badira 240 gramo jateko prest daudenak!"

Patxi Larrazabal > Indabadako sukaldaria

Badator, badator... eta urriaren 29an helduko da Algortara XII. Indabada! "Herria astindu eta berpizteko asmoz", urtero legez jolasak, poteoa, txaranga, zozketak e.a. izango dira. Eta nola ez, ez da faltako Indabadaren erregina, jaiaren muina eta aitzakia: indabak! Eta oraindino indabak bakarrik prestatzen ez direnez, Patxi Larrazabal ibiliko da jo eta su kazolen artean, indabei so. Lehenengo Indabadan hasi zen sukaldari: "Gazteek eskatu zidaten, baina aurretik Burdinola gaztetxean ere bazkariak prestatzen nituen". Izan ere, sukaldaritzaren eta herri-mugimendua uztartu ditu Larrazabalek: "Portu Zaharreko jaietako marmitakoan, Berangoko Bacaladan, txokoetan... kazolak probatzeko beti deitu didate". Indabadan 500 bat lagunentzat prestatzen du bazkaria, baina bere ustez ez da gaitza kalkulatzeko, neurria hartu diolako: "Pertsona bakoitzeko 80 gramo indaba botatzen ditugu, baina badira 240 gramo jateko prest daudenak!". Plater denak bete arte, baina, ez du balio errepikatzeak! Horretaz gain, pertsona bakoitzeko 35 gr. txorizo, 50 gr. urdail, 60 gr. saiheski, 60 gr. odoloste... gehitzen dituzte. "Generoa oso ona da. Indabak, esaterako baserritik dakarguz zuzenean". Peroloen artean egoteaz gain, giroaz gozatzeko aukera ere izaten du Patxi: "Gazteak kazolak kontrolatzen dituzten bitartean, astia izaten dut poteren bat hartzeko! Oso giro ona sortzen da herrian".

○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Uholdeak saihesteko

Azaroan barriro **bilduko da** uholdeen **batzordea**; bestalde, Romo eta Areetako **Errekagane** inguruan **lanak hasi** gura ditu Eusko Jaurlaritzak Gobela ibaian, **urtea amaitu aurretik**

Gobela ibaiaren ertzean bizi diren herritar askoren buruhaustea dira uholdeak. Hauteskundeak eta gero geldi egon da Uholdeen Batzordea, baina azaroan bilduko da ostera ere. Urte amaitu baino lehen Errekagane inguruko lanak hasi gura ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak.



2011 amaitu baino lehen hasi gura dituzte lanak, baina hainbat lur desjabetu behar dute aurretik

Uholdeak, Gobela ibaia eta arroan egin beharreko lanak. Hika-mika asko, zalantza eta kezka handia eragin du gaiak, bai ibaiaren alboko bizilagunen artean, bai bestelako herritarren artean. Gauzak horrela, azaroan elkartuko da barriro Getxoko Uholdeen Batzordea, maiatzeko Udaltaldearen ostean lehenengoz. Ibaiaren arroa atontzeko fase barriari ekin aurretik batzuen eta besteen asmoak plazaratuko dituzte, baita adostasun eta desadostasunak ere.

Hainbat lan eta ekintza garatu ditu URA Uraren Euskal Agentziak orain arte Salsidu eta Etxezuri-Larrañazubi eremuetan, eta hurrengo fasea definitu du, Errekaganekoa. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailak 2011 amaitu aurretik hasi gura ditu lanak inguru horretan, Errekagane, Zugatzarte, Antigu Golf eta Gobela kiroldegia artean. Baina horretan sartu baino lehen hainbat lur eremu desjabetu behar du, eta hori *“Udalaren eskumena da, ez Eusko Jaurlaritzarena”*, Pilar Unzalu Ingurumen sailburuak dioenez.

Fase honetan 11 metro arte zabaldu-

ko dute bidea 200 metro luzeko tartean. URAtik jakinarazi dutenez, zaila izango da fase hau gauzatzea, izan ere, *“ibaia doan bidea da zabaldu beharrekoa”*. Horregatik, ibaiaren ezkeraldera dagoen tartearen zati bat okupatu beharko ei-

Errekagane inguruko lanek 13 milioi euro kostatuko dute, horiek amaitutakoan ekingo diote beste fase bati

dute, Antigu Golfeko garajeetara sartzeko errepidearen parte bat tarteko.

Lanok aurreko fasekoak bat egingo dute Leioako Zubi inguruan eta Avanzadako zubiraino joango dira. Handik Valdesko gainezkabidera arte egungoa baino sekzio handiagoa eraikiko dute, Errekagane estaldura desesta-

li ostean, ubidearen hustubide ahalmena ere handitzeko. Lanak amaitutakoan barriro ere erdizka estaliko dute ubidea, Udalaren *“hiri-beharrek direla eta”*, URA agentziatik jakinarazi dutenez.

Errekagane inguruko lanei *“erabat beharrezkoak”* deritze URAk; izan ere, 2008ko ekaineko uholdeetan ia gainezka egin zuen ibaiak han ere. Ordukoak baino uholde apur bat handiagoek *“kalte garrantzitsuak eragingo lituzkete, eta urak gora, uholdea larriagotuko luke”*. Horregatik garatuko dute hurrengo fasea Errekagane inguruan. Tarte honetarako proiektuaren erredakzioak eta egikaritzeak 13.067.941,84 euro kostako dela ere jakinarazi du.

Ondorengo lanak ere zatika egingo dituzte eta Errekagane amaitu ostean ekingo diote hurrengo fasei. ○

Argiak eta aurrerapena

Ilustrazioaren garaia Ondarearen Jardunaldietan



Erreserbak eta info+: infoturismo@getxo.net, www.getxo.net/turismo eta 944 910 800

Argiak eta aurrerapena, ilustrazio garaira garamate aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldiek: ‘Ilustratu’ hitzak esan gura du *“adimenari argia ematea, irakastea, zibilizatzea”*. Hori da jardunaldien oinarria: lan horretan saiatu ziren hainbat bizkaitarren ahalegina erakustea.

XVIII. mendean nekazaritza edota industriaren tresna eta teknika barriak sortu zituzten ilustratuek. Uribe Kostan hainbat herritarren garatzen ari dira ekin-tzak, Getxo da horietako bat: antzerkia eta erakusketek osatuko dute programa.

Simulacro Teatrok antzerki ibiltaria egingo du urriaren 22, 23, 25, 29 eta 30ean. Beaumarchais eta Peñafloredako Kondearen testuetan oinarrituta pentsamendu ilustratuaren nondik norakoak aurkeztuko dituzte. Getxoko Andra Mari

eliza eta Aingeru Guardakoaren ermita artean izango da antzezpena 17:00etan, 25ean izan ezik, egun horretan 11:00etan eta 13:00etan egingo dute.

Bestalde, Aixerrota erakustoki bihurtu da azaroaren 1era arte. Errotaren historia eta haren ezaugarriak ezagut daitezke, egunero: eguazten eta domekataran 13:30etik eta 17:00etara, gainontzeko egunetan 13:30etik 23:30era.

Galeako Forteari buruzko erakusketa ikusteko, ostera, Algortako Torrene kaleko erakustaretora hurbildu behar da. Fortea eraikitzearen arrazoiak, hainbat erabilera eta Bizkaiko jaurreria babesteko izandako garrantzia azaltzen du. Asteazken zehar 08:00-14:00 eta 17:00-20:00 bitartean bisita daiteke, zapatuetan 08:00etatik 14:00etara. ○

IGO TAULA GAINERA ETA ERAKUTSI ZURE IZARRA

Gazteentzako Izarren Distira lehiaketa abian da eta kastinak egingo dituzte urriaren 26an eta 27an. Euskarazko ikuskizunen lehiaketa honetan gazteek edozein diziplina aukera dezakete: kantak, antzerkia, dantza, bertsoa e.a. Aurten gainera, ikus-entzuzko ikuskizunak ere aurkez ditzakete: bideoak, film laburra e.a. Lanek bi eta hamar minutu bitartean irau behar dute. Bakarka zein taldeka egin daitezke, baina taldeka izanez gero, gehienez sei laguneko multzoak izan behar dute. Azaroaren 6an egingo dute gala Areetako Musika Eskolan eta sari bi emango dute, Euskarari bata (bideo kamera bat), Ikuskizun onenari bestea (MP5 bat).

Izen-ematea: info@izarrendistira.com eta 663 083 736

ZURE ARTELANAK ERAKUTSI GURA?

Artista asko dago inguru honetan, baina nahikoa leku al dago haien sorkuntza lanak erakusteko? Algortako Torrene kaleko erakustaretora lanok batzen saiatzen da eta 2012an artelanak erakutsi gura dituztenek oraintxe daukate aukera izena emateko, azaroaren 30era arte. Algortako kultur etxean egin behar da, eta jasotako eskabide guztien artean, hiru proposamen hautatuko ditu adituz osatutako epaimahaia. Hilabete iraungo du erakusketa bakoitzak.

Izen-emate orria: www.getxo.net

PINTXO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO

Abenduaren 17 eta 18an izango da GetxONegin pintxo lehiaketa eta parte hartzerako doazenean asteotan eman behar dute izena, azaroaren 11 baino lehen. Udalak fitxa bat banatuko du tabernetan. Berau bete ostean Euskara Zerbitzuari helarazi behar zaio bulegora joanez, telefonoz edota korreo elektronikoz. Ostalaritza eta euskara uztartu eta sustatzea da lehiaketaren asmoa.

Info: 944 660 010 eta gehi@getxo.net


Lorezaintza
zerbitzu orokorrak
Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algorteros
"Amumak"
Asteazken poetikoa
Itsas Fundazioa
Euskara eta Algortako Izenak
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak
<http://www.algorta.org>
<http://amumak.getxo.net>
e-mail: sotaventoster@gmail.com
Móvil: 656773080

Garaizar
barrikuntzak
• igeltsaritza orokorrean
• etxebizitzak eta lokalak
• gremioak
Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ilieta Kalea 1 • ALGORTA

Unai Lebrero > Hezetasuna auzoko Jai-Batzordeko kidea

“Taula handia Faduran ipiniko dugu, taldeek jotzeko leku zabalagoa behar genuen”



Azaroaren 11tik 13ra, erdu Hezetasun auzora!

Udako kontua izaten dira herriko jaiak, horrela uste du askok. Baina santutegia zabala da, ehunka santurentzako ehunka egun behar eta urte osoan zehar egoten dira jaiak, barbarako, Getxoko Hezetasuna auzoan: San Martin jaiak ospatuko dituzte azaroaren 11tik 13ra. Aurten bereziagoak izango dira, eskenatoki nagusia Fadurara eroango dute-eta. Rock kontzertuak egingo dituzte bertan, eta lasaiagoak auzoko eskena txikian. Txikiak izanagatik zereginik ez da falta Hezetasun auzoan, San Martineko krosa ere antolatzen dute urtero.

—Agian ez dira oso ospetsuak Hezetasuneko jaiak, baina lanean zabiltzate ganorazko jaiak ospatzeko.

—Jai-Batzordean jende gutxi gaude, baina gure helburua da jaiak aurrera jarraitzea, eta duela 40 urte bezala, jaiak egin eta jendeak parte har dezala. Auzoko bizilagunok osatzen dugu.

—Nolakoak dira jaiak?

—Auzoa denez, nahiz eta prestaketa erraza izan, badauka bere lana: batzuek eta besteak hitz egin eta dena lotu beharra dago, jaiak ondo aterako badira.

—Aurten berezitasunen bat dakarte?

—Laz arte auzoan bertan egin ditugu ekimen guztiak, baina orain Udalak araudi barria atera du, eta eskenatokiak aldame-neko etxeetatik distantzia jakin batera egon behar dute. Leku nahikorik ez eta taula txikia ipini behar dugu. Baina taldeek jotzeko leku zabalagoa behar genuen, horregatik eroango dugu taula handia Fadurako aparkalekura.

—Egoera horretan erraza al da jaiak aurrera ateratzea auzo txiki batean?

—Ez. Jaiak hilabete bi lehenago prestatzen

hasten gara, orokorrean antzeko gauzak egiten ditugu urtero, baina ekimen barriak egiten saiatzen gara. Jai-Batzordean lagun gutxi gara eta asko barriak, beraz, jendea animatzen gabiltza, Jai-Batzordean parte har dezan. Kartelak ere ipini ditugu, ea jen-

«Batzordean gutxi gara eta batzuetan jairik ez egiteko zorian egon gara»

deak lotsa kentzen duen. Batzuetan jairik ez egiteko zorian ere egon gara, erreta, baina azkenean, harrotasunagatik aurrera egin dugu.

—Zer ekimen egongo da aurten?

—Barikuan hasiko dira jaiak, azaroaren 11n. Umeentzako ikuskizuna eta Josu Doncelen kontzertua izango dira barikuan. Zapaturako umeentzako jolasak prestatu ditugu eta herri-bazkaria egingo dugu, paella erraldoia. Idi-probak ere izango dira. Gauean Jai-Batzordeko lagun bik musika ipiniko dute taula txikian. Faduran 21:00etan hasiko dira kontzertuak. Barikuan joko dute Ertz eta Psyko taldeek, eta zapatuan Los bronkos, Eon, Nafarroa 1512 eta Baltzak taldeek. Domekan umeentzako jolasak eta hainbat txapelketa egingo ditugu, Voces Navarras taldeak abestuko du eta txokolate-jana zein txerri-erretzea egingo ditugu.

—Azkenik, Udalagaz pozik zaudete?

—Ez asko, beste jaiakaz alderatuta dirulaguntza oso txikia da eta musikari dago-kionez talde handirik ezin dugu ekarri. Gainera, bi urtetan ez digute utzi txosna ipintzen eta oso zaila da horrela dirua ateratzea. Auzoko taberneak eta komertzioek laguntzen dute, horrek ematen du gutxi-nekoa jaiak aurrera ateratzeko. Baina beno, badirudi aurten txosna berreskuratuko dugula. ○

Hotza kentzeko: indabak

Indabada ospatuko dute Algortan **urriaren 29an, zapatua**; eguna ekintzaz beteta dator



Txartelak salgai ohiko lekuetan

Indabada mundiala eta erraldoia, urtero legez. Iazko maila gairatzea lortuko al dute algortarrek? Iaz 600dik gora lagun elkartu zen Biotz Alai plazan, hamaika ekimenez, musikaz, jolasez eta indabez gozatzeko. Urriaren 29an ipini dute hitzordua oraingoan, hileko azken zapatuan.

Goizetik egongo da zer ikusi eta zertan parte hartu, atsedenerako ia astirik barik. Dianagaz ekingo diote jaiari eta horren ostean Biotz Alai plazan kokatuko dira ekitaldiak. Herri-kirolak izango dira, baita txotx musikatua ere: Gibel Urdiñek taldeak girotuko du plaza. Laster iritsiko

da herri-bazkarirako garaia, mahai eta aulkiak ipintzen lagundu beharko dute guztiak, ezta? Bazkalostean ere ez dira faltako kantuak eta jolasak.

Arrastiko poteoan Zpeiz Mukaki txarangak lagunduko du, eta amaitutakoan, azken urtean moduan, musika joko dute kamioian. Kamioiari jarraituz, Getxoko Txorimalo Gaztetxeraino joango dira indaba zale guztiak jaiagaz segitzera, Hamelingo txirula-jotzaileagaz gertatu antzera; izan ere, gaupasa izango da bertan. Azkenik, esatea bazkaritarako txartelak ohiko lekuetan eros daitezkeela; zur ibili eta erosi amaitu orduko! ○

EUSKARAZKO AKADEMIEN LIBURUXKA ESKURAGARRI

Ume, gazte zein helduek badaukate aukera Getxon euskaraz jasotzeko eskola-laguntza, musika, dantza, eskulanak, pintura-tailerrak, euskara-ikastaroak, e.a. Horien barri zabaldu guran, eskaintza euskaraz ematen duten akademiak liburuxka kaleratu dute, GEHI Getxon Euskara Sustatzeko Hitzarmenaren baitan. Orotara 27 akademiari buruzko informazioa jasotzen du eta Udaleko webgunean deskarga daiteke.

Info+: www.getxo.net

BERBODROMOA IRITSI DA GETXORA, PARTE HARTU!

Berbalagun taldeak badaude han eta hemen, herri gehienetan. Horregatik antolatzen ari da Egizu Berbodromoa, Getxoko Euskara Jardunaldien baitan. Azaroaren 25ean egingo dute, baina izena eman behar alde aurretik. Goiz eta arrastiz, lau txandatan batu gura dute 400 pertsona, guztiak euskaraz berba egiteko. Launaka eseriko dira Algortako Biotz Alai plazako karpapean, barriketa lasaian kafea hartzeko. Hiru gai proposatuko dute, bakoitzarentzat 15 minutu izango dira, eta gai baten eta bestearen artean, parte-hartzaileak mahaiz mugituko dira mintzakidez ere aldatuz.

Izen-ematea: **619 935 541**
edo www.egizu.org

EGUR-TAILA EUSKARAZ, AZAROTIK AURRERA

Tailerrak hamaika antolatzen dira urtean zehar eta artisautzagaz lotuta daude asko, baina gutxi egiten dira euskaraz. Egizu elkarteak aukera eskainiko du euskaraz egur-taila egiten ikasteko, Algortako Aldai Patronatuan. Azaroaren 7an hasiko da tailerra, beraz oraindino garaiz zabiltza izena emateko. Egizuren webgunean topatuko duzu informazio zabalagoa, baita izena emateko jarraibideak ere.

Info+: www.egizu.org

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Jose Luis Liz > Euskara Zerbitzuko teknikaria

“Txilinbuelata ez da euskara ikasteko jarduera, umeek gai izan behar dute euskaraz egiteko”

Aspaldiko programa da Txilinbuelata. Ume euskaldunei zuzenduta dago, aisialdian euskararen erabilera bultzatu asmoz. Urtean zehar hainbat urteera egiten dute, azaro akabuan izango da aurtengo azkena, Hondarribira. 1999 eta 2004 bitartean jaiotakoek izena eman dezakete Euskara Zerbitzuan.

—Hondarribira doaz umeak oraingoan, zelako urteerak egin ohi dituzue?

—Aspaldiko partez urteko laugarren urteera izango da hau. Azken urteotan hiru bakarrik antolatu ditugu, udagoienekoak harrera onik ez zeukalako, baina aurten animatu gara ostera ere. 1999 eta 2004 bitartean jaiotako Leioako ume euskaldunak joan daitezke Hondarribira; azaroaren 11tik 13ra izango da txangoa. Ez da euskara ikasteko jarduera, suposatzen da umeek euskaraz egiteko gai izan behar dutela. Kopuru aldetik, 50era mugatu dugu. Maiz 80 eskaera ere izaten dugu, baina ohartu gara hori ez dela kopuru aproposa lortu gura ditugun helburuetarako. Batetik, talde handiegia bilakatzen da aisialdia eta hizkuntza lotu ahal izateko, kontrol ez handia dagoelako. Bestetik, zenbat eta ume gehiago, orduan eta



Leioako Euskara Zerbitzuak utzitako argazkia

arazo gehiago aterpeak aurkitzeko.

—Helburua aipatu duzu, aisialdian euskara erabiltzea da, ezta?

—Umeen esparru formal hezkuntza da eta hori beteta daukate; euskarazko aisialdia eskaintzeko asmoa daukagu. Urteez gain jolasak eta tailerrak egiten ditugu asteen bitan, umeentzako euskarazko filmak proiektatzen dira, e.a.

—Zelako jarrera izaten dute umeek euskararekiko?

—Beno, umeak ume dira eta dibertitu gura dute, baina saiatzen dira euskaraz egiten. Eskolan hartutako jarrera errepikatzen dute hemen, hori da daukagun oztzopoa.

—Datorren urtean ildo bera mantenduko duzue?

—Oraingoz ez dugu aldaketarik aurreikusten, baina gerta litezke. Gauza batzuk baloratu eta begiraleen ekarpenak jaso behar ditugu erabaki aurretik. ○

Osasuna garrantzitsuena

Kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarreko programa abiatu dute Leioan



Info+: 900 840 070 eta Osasun Zentroan

Garrantzitsuena ei da osasuna bizitza honetan, haren arabera antolatuko dugu bizimodua. Baina askotan ez da erraza gaixotasuna antzematea eta haren barri ez dugu izaten; eritasun batzuk isilak dira eta ondo aurreratuta egon arte ez dute ematen beren buruaren barri.

Barriz, gaixotasunak ahalik eta azkarraren detektatzea sendatzeko ezinbestekoa izaten da kasu askotan, minbizia dugu horren lekuko eta horregatik abiatu dute Osasun sailak kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarreko programa.

Bertan parte har dezakete 50 eta 69 urte bitartean daukatenek, izan ere, programaren helburua da “*hasiera faseko lesioak eta minbizia goiz detektatzea*”.

Proba oso erraza ei da, nor bere kabuz egitekoa: etxean poltsatxo bat jasoko du proba egitera doanak, plastikozko hodi bat barruan; horregaz gorozki-lagin txiki batzuk jaso beharko ditu.

Hiru egun baino lehen Osasun Zentroan eroango du lagina, eta bertan dauden edukiontzian utzi: ez da hitzordirik eskatu behar, ez eta itxaron behar ere, poltsatxoa bere hodiagaz Bezeroaren Arreta Zerbitzuan izango den hozkailuan utz daiteke zuzenean.

Proba zein programari buruz informazio gehiago jasotzeko 900 840 070 telefono zenbakira deitu edo Leioako Osasun Zentroan galde daiteke, arazo eta parte hartzeko konpromiso barik. ○

BISITA EGIZU ZIENTZIA ETA MEDIKUNTZAREN EUSKAL MUSEOA

Ondarearen Europako Jardunaldiak iritsi dira Leioara ere bai, EHUren kanpusera. Medikuntza eta Zientzia Historiaren Euskal Museoa bisitatzeko aukera dago datozen asteotan. Liburutegiaren eraikinean dago. Medikuntza eta Zientzia arloetako tresnen bilduma ikusi ahalko duzu museoan, horietako batzuk ilustrazioaren garaioak. Martitzen eta eguen guztietan hurbil zaitezke, 08:00etatik 14:00etara. Informazioa eta erreserbak egiteko 946 012 790 telefonora dei dezakezu.

IRRATIEI BURUZKO KONGRESUA EHU-N

The Radio is Dead. Long live the Radio Ikus-entzunezko eta Publizitateko Nazioarteko I. Kongresua egingo dute EHU-n azaro akabuan, baina parte hartzeko izena eman daiteke. Urriaren 30 arte merkeago da: ikasleek 20 euro ordaindu behar dute eta ikerlari, profesional, irakasle zein komunikazioa aurkezten duten ikasleek 60 euro. Urriaren 30etik aurrera, barriz, ikasleek 25 euro ordainduko dute eta gainontzekoek 75 euro, beraz, azkar ibili!

Izen-ematea eta info+: congresoradio2011@ehu.es

ZEU ERE IZAN ZAITEZKE BERBALAGUN

Mintzapraktika programan parte hartu gura dutenek izena eman dezakete Leioako Berbalagun programan: edozeinek parte har dezake, bardin dio euskaldun zahar, euskaltegiko ikasle ohi edo euskaltegiko ikasle izan. Udaleko Euskara Zerbitzua, Berbalamiñe Euskara Elkarte, Lamia AEK Euskaltegia eta Mastitxu Udal Euskaltegiak sustatzen dute egitasmoa herritar orori euskaraz bizitzeko aukera eskaintzeko asmoz, “*euskararen presentzia gure kaleetan eta jendartean beharrezkoa baita*”. Aipatu lekuetara jo behar da izena ematera.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

BIZKAIA
irrátia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Miriam Herbon > trebatzailea, feminista eta barreterapia terapeuta

“Barrea aldaketarako tresna bihurtu gura dugu, emakumeen jabekuntza prozesua ahalbidetzeko”

Udaleko Berdintasun arloko barreterapia ikastaroa hasi du Astrabuduan. Lau saio egingo dituzte bertan, eta beste lau Alzaga auzoan. Miriam Herbon Sortzen, emakumeen aurkako biolentziaren prebentziorako eta jabekuntza prozesuetan espezializatutako aholkularitzako kideak gidatzen du tailerra.

—Hau ez da ohiko barreterapia tailerra?

—Barreterapia berez trebakuntza antzekoa da, orain oso modan dago eta gero eta prestakuntza handiagoa eskaintzen da. Baina guk ez dugu ohiko barreterapia egiten, guk barrea aldaketarako tresna bihurtu gura dugu. Berdintasun arloetarako ematen ditugun tailerrak jabetze prozesuen barnean kokatzen dituzte. Beraz, tailer honek emakumeen jabetze prozesu kolektiboa erraztu edo ahalbidetu gura du. Gorputz adierazpena, gorputzaren lanketa, gure emozioen ezaguerara eta horiekaz dauzkagun mugak nahastuko ditugu zortzi saiotan; barre egingo dugu, jolastuko gara, eta gure barnean lo eta hezita daukagun neskatoa berreskuratuko dugu. Aztertuko dugu emakumeok zergatik ez dugun barre egiten gura genukeen beste, zergatik gauden lotuago



Miriam Herbonek utzitako argazkia

tristuragaz poztasunagaz baino, gure buruari galdetuko diogu zeintzuk diren mugak batzuetan gura genukeen bezain alaiak ez izateko. Ikusiko dugu hori dena lotuta dagoela emakume gisa gure burua ulertzeko moduagaz: umetatik irakatsi digute ahoa eskuak estalita irribarre egiten, bihurrikierarik eta bromarik ez egiten. Barrea terapeutikoa da, tratatutako barrea askatzen joango gara, apurka atetarako da, baita negarra ere batzuetan. Baterako eta besterako arrazoiak topa-

tzen ere saiatuko gara.

—Nork parte har dezake?

—Emakume gisa euren burua eta genero agindua zalantzan jartzeko aurretiko joera daukaten, hazi, ikasi eta elkarbanatzeko gogoia daukaten emakume guztiek parte har dezakete, tabuak eta lotsak alde batera utzita. Barruan daukagun pailazo jarreratik lan egingo dugu. Inposatu diguten feminitate hori zalantzan jartzeko prest dauden emakume guztiak etor daitezke. ○

10. azaroa Lutxanan

Tirante Plataformaren **Noviembre Kulturala ospatuko dute 4tik 27ra**, hamargarrenez



Kinka larrian egon da aurten Noviembre Kulturala

Hamarkada bat Lutxanan kultura egingo du. Noviembre Kulturalak hamar urte bete du eta ekintzaz blai dator. *La cultura hace aguas* dio aurtengo leloak; izan ere, diru-laguntza galtzekotan eta kinka larrian egon da.

Azaroaren 4tik 27ra izango dira ikuskizunak eta Tiranteko partaideek ekingo diote programari: barikuan, hilak 4, *Me gusta tu vestido* dantza eta antzerki ikuskizuna eskainiko dute 22:00etatik aurrera eta zapatuan, hilak 5, *La 52* antzezlan, eta horren ostean, *Miss Ovarios 33* umorezko kontzertu “*des-kontzertua*”. Domekan, hilak 6, barriz, *Serie impros* ikuskizuna

egingo du Organik taldeak 19:00etan eta *Los Man ones* ere arituko dira.

Bigarren asteari *Katxarrismos* izena ipini diote eta egongo da zer ikusi: 11n Eunon antzerki musikala (Apropox taldea) eta *Combate a KO* (4 DJren arteko lehia), 12an Aritza Rodriguezen clown ikuskizuna eta Ullanah musika taldea (Balkanak), 13an *Katillukadak* lana (Kontakatillu) eta The Great Barrier taldearen kontzertua. Hortik aurrera ere izango da zegas gozatu: orkestra, *Gure bide galduak* lana, DJ Vinilos, bazkari *auzokoia* e.a. Baina hurrengo zenbakian emango dizugu horien barri. Ordura arte, gozatu! ○

BERBALAGUN IZAN GURA?

Jakingo duzunez, euskaraz berba egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak batzen dituen programa da Berbalagun, euskara hobetzeko, bide horretan laguntzeko, gehiagotan erabiltzeko, euskaraz bizitzeko eta normalizazioaren alde egiteko. Talde txikietan elkartzen dira berbalagunak astean behin eta ordubetez tabernan, kalean, eskola ostean edota zaletasun baten inguruan: txirindularitza e.a. Erandion ere badaude berbalagun asko. Zuk ere parte hartu gura? Programari buruzko gehiago jakiteko aukera daukazu datorren urriaren 26an, Astrabuduko Kultur Etxeko gela urdinean, 19:30ean. Lotsa galdu eta animatu!

ATARA GIDABAIMENA EUSKARAZ ERANDION!

Euskaldun, utziozu burua hausteari, Erandion B motako gidabaimena euskaraz atara dezakezu-eta! Eusko Jauriaritzak jakinarazi duenez, prestakuntza teorikoa zein praktikoa euskaraz eskaintzen du hainbat autoeskolak, Erandioko hiru tarteko: Altza (San Jeronimo 16), Arias (Fundacion Jado 19) eta Gaztedi (Trabudu 3). Ondoko materialak jasoko dituzu: trafiko araudia euskaraz, multimedia programa eta azterketak batzen dituen CDa. Gainera, irakasle euskaldunak ere izango ei dituzu. Egingo al duzu proba?

GARBITEGIAK

BARRITZEN ARI DIRA

Gure historia eta ondarearen parte dira herrietako garbitegiak, eta horregatik, Erandiokoak barritzen ari da Udala. Batetik, Urgitxikoa konpontzen amaitu barri dute, Urgitxi-Telleribarri bidea eta Erandiogoikoa-Magdalena errepidearen arteko bidegurutzean dago Urgitxi iturria. Bestetik, Tartangakoaren barritze lana osatzeko teilatua konponduko dute laster. Otsailean hasi zituzten lan horiek Erandioko zortzi langabetuk.

Luberrri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

ANTZERKIA, ZINEMA, IPUIN KONTALARIA... KURTZION

Urria jardueraz beteta hasi zuen Kurtzio Kultur Etxeak, eta hala amaituko du hilea. Urriaren 27an eta 28an zinema egongo da: "Mis tardes con Marguerite" eta "Sukalde kontuak", 17:30ean eta 19:30ean, hurrenez hurren. Debalde izango dira biak ala biak. Urriaren 29an, barriz, Tearto Teatroren "Autoestigmas" antzezlaren aurre-estrenaldia egongo da ikusgai. 20:00etan hasiko da, hiru euroren truke. Azaroa, bere aldetik, ipuinakaz hasiko du Kultur Etxe sopoloztarrek. Hilaren 6an, 18:00etan Kontu Kantoi ipuin kontalaria izango da Kurtzion. Hiru euroren truke, 4 eta 9 urte bitarteko umeei ipuinak entzuteko aukera izango dute. Ondo pasa!

GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEAGATIK JASO DIRULAGUNTZAK!

17 eta 23 urte artean dituzten sopoloztarrek dirulaguntzak jasoko dituzte aurrerantzean gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egiteagatik. Udalak zehaztu duenez, dirulaguntza matrikula ordaintzeko emango da, eta ikasleak ez ditu tasak ordaindu beharko. Halaber, azterketa teorikoa euskaraz egitekotan, matrikularen %75 jaso ahal izango du. Praktikoaren kasuan, ikasleak debalde jasoko du lehen eskola. Egitasmoan Kaiku auto-eskolak parte hartu du.

SOPELBUS ZERBITZUA, URTE AKABURA ARTE!

Aurten Sopolbus zerbitzua urte akabura arte erabiltzeko aukera izango dute sopoloztarrek. Udalak iragarri duenaren arabera, asmoa urte osoan mantentzea da eta horrenbestez, aukera hori aztertuko dute aurrekontuan. Orduetegiaren baina, aldatetako egin dituzte udakoagaz alderatuta, lan ordutegiara egokituz. Prezioak berdinak izango dira: bidaia bakoitzak 0,50 euro kostako da, eta 12 bidaietako bonoa, barriz, 5 euro.

Putxera txapelketa prest! 'Pepetxin'-en omenez, azaroaren 5ean II. putxera lehiaketa antolatu du Zapiko taldeak



Azaroaren 12an erakustaldia egingo dute Kurtzio Kultur Etxean

Bigarren urtez, putxera txapelketa izango da Sopelan, 'Zapiko Taldea'-k antolatuta. Azaroaren 5ean jarri dute hitzordua, Udaletxe plazan. Parte hartu gura duten koadrilek goizeko 09:00etatik 11:00etara izango dute izena emateko aukera, debalde.

Kazolak prestatzeko eremua Udaletxe ingurua izango da. Lehiaketaren helburua herrian giro ona sortzea eta ondo pasatzea bada ere, Jose López 'Pepetxin' Sopolako auzokide ohia omentzeko baliatu gura dute eguna. Izan ere, 'Pepetxin' sukaldaritza lehia-

keten zaletu amorratua zen, eta besteak beste, 2009. urtean Balmasedako putxera txapelketa eskuratu zuen.

'Zapiko' koadrilako lagunek txapelketa iaz antolatu zuten lehenengoz; eta jasotako arrakasta ikusita, aurten errepikatzea erabaki dute. 90 indaba-kazola baino gehiago aurkeztu ziren iaz, eta Sestaoko Matxakito Mallabiak irabazi zuen lehen saria: 500 euro, txapela, 12 kilo ikatz eta supizteko bat, hain zuzen. Lehen sopoloztarra hamargarren postuan lotu zen, ea aurten sailkapena hobetzerik dagoen! ○

Itxaso Gurrea > "Ni neu izatearen artea" mintegia

"Beharrezkoak diren bitartekoak izanez gero, ez da zaila 'gu geu' izatea"



Itxaso Gurrea sopoloztarra izango da mintegiaren arduradun

Azaroaren 18tik 20ra "Ni neu izatearen artea" mintegia izango da Kurtzio Kultur Etxean, Itxaso Gurrearen eskuetik. Parte hartzeko, azaroaren 11 baino lehen izena eman beharko da, 40 euroren truke.

—Gu geu izaten ikasteko hiru eguneko mintegia antolatu duzue; hain zaila da gu geu izatea?

—Ez, baldin eta beharrezkoak diren teknikak eta bitartekoak baditugu. Arazoa da ez dugula inoiz inteligentzia emozionalari buruzko hezkuntzarik jaso. Gure buruagaz oso deskonektatuta gaude, eta askotan politikoki zuzena dena egitera behartuta sentitzen gara. Eta horrek oso gutxitan bat egiten du pentsatzen dugunagaz.

—Orduan jendarteak bultzatzen gaitu gure buruari uko egiten...

—Faktore asko dira. Hasteko errealitatea zer den galdetu behar diogu gure buruari. Hainbat filtro ditugu: familiarak, hezkuntzakoak, sozialak e.a.

—Mintegian teknika horiek irakatsiko dituzue?

—Batez ere autoezagutza teknikak irakatsiko ditugu, eta pentsamenduak non enfokatu behar ditugun. Oso garrantzitsua da jakitea zein den gure burmuinaren funtzionamendua; zelan sortzen ditugun sentimendu eta pentsamenduak. Horren arabera bizitzarekiko jarra bat izango dugu, eta askotan, jarrera horren eraginez ondorioak jasoko ditugu. Artikulu batzuen arabera, etorkizuna

«Gauza bat pentsatu, baina beste bat esaten dugu, eta beste bat egin»

nean gehien eragingo gaituen gaixotasuna depresioa izango da. Izan ere, batzuetan gauza bat pentsatu, baina beste gauza bat esaten dugu, eta beste bat egin. Orduan, tailer hauen bidez, saiatzen gara pertsonak aukera ezberdinetaz jabetzen eta koherente bihurtzen. ○

Info+: www.autoestimapuravida.com

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Auria Diharce eta Aitor Calvo > Mara-Mara

“Normalean umeentzako tailerretan gurasoak kanpoan lotzen dira; gurean parte har dezakete”

Mara-Mara topalekuagaz batera heldu da ‘Slow mugimendua’ Berangora. Aitor Calvok eta Auria Diharcek sustatutako guneak hainbat ekimen antolatuko ditu, lau hankatan banatuta: ‘Slow’, ‘En familia’, ‘Oreka’ eta ‘Txoko’.
—Zer topatuko dugu Mara-Mara gunean?

—Mara-Marak elkartzeko gunea eskainiko du, gehienbat familientzat eta umeentzat, baina heldu eta lagun-taldee ere zuzenduta egongo da. Goizetan familientzako jarduerak egongo dira (masajeak, reflexologia...). Hazkuntzarako gunea izango da, topalekua. Aurreko urteko irailan hasi ginen proiektuagaz: gure bigarren alabak lau hilabete zituen eta horrelako zer edo zer falta zela igarri genuen.

—Tailerrak antolatuko dituzue, besteak beste, ‘slow’ eta ‘en familia’-ren baitan...

—Slow-ak erritmoa moteltzea esan gura du, bakoitzak behar duen erritmoa bilatzea. Tailer ‘slow’ak izango dira, alegia, tailer lasaiak, familian egitekoak, bakoitzak bere erritmoan egiteko... Normalean umeentzako tailerretan gurasoak kanpoan lotzen dira, eta ezin dugu eurek jolastu. Gurean, gurasoak ere gonbidatuta daude tailerretan parte-hartzen. Taldeak osatu barik daude, baina programan martitzen



Lantzarte auzoko 9. zenbakian dago Mara-Marako lagunen lokala

eta eguenetan 11:00etatik 14:00etara jarri ditugu tailer horiek. Bi edo hiru urtetik gorako umeentzat, bestalde, tailer sortzaileak antolatu ditugu: musikaterapia, zirkoa, mozorrotzekoak, dantza... mundu magikoko tailerrak! Arrastietan familientzako tailerrak ere egongo dira, martitzenetan hazkuntzarako talde bat izango dugu Taupadagaz e.a.

—‘Oreka’-n zer landuko duzue?

—Eskola-kontuetan seme-alabak lagun-

tzeko, ikusten dugu gurasoek faltan botatzen dutela osagarri bat. Ez dira eskola partikularrak, baizik eta taldean gustura egotea, ikastearen gogoeta eginez.

—Eta azken hanka ‘Txokoa’ dugu...
—Aloka daitekeen txokoa ere izango da Mara-Mararen lokala: lagunak afari edo bazkariak egiteko, ospakizunak... Eguenetik domekara alokatzeko aukera egongo da; gauerdira arte. ○

Info+: www.mara-mara.com

Miren Erkoreka > Olentzeroko antolatzaile-taldeko kidea

“Olentzeroren bidez, euskal kultura eta mitologia sustatzen dugu”



Parte hartu gura baduzu, Goñi Portalen eman dezakezu izena: 946 775 541

Oraindino nahikotxo falta zaigu Olentzeroren bisita jasotzeko, baina Plentzian, azaroan hasiko dituzte antzezpenerako entseguak. Hainbat belaunaldiko auzokideak batera, antolatze lanetan ibiliko da Miren Erkoreka.

—Zelan hasi zineten Olentzeroren antzezpena antolatzen?

—Orain 28 urte hasi ginen, nik 11 urte nituen garai hartan, eta 25 bat umek parte hartu genuen. Olentzero-panpina egin, eta kalejira egin genuen herriko auzoetan. Gotzon Pérez Laraudogoitiak sortutako txistulariakaz eta gurdiagaz joan ginen. Arrakasta izan zuenez, urtez urte errepikatu genuen.

—Eta apurka-apurka antzezpena hazten joan da...

—Bai, hasieran jentilak batu genizkion (txikiteroen arropa erabiltzen genuen). Ondoren hankapaluak sartu genituen, dolmena, musika, lamien dantza, sorgi-

nak, koreografiak... Narratzailea sartzea ere erabaki genuen, eta azkenean ipuintxo bat asmatu dugu. Urtez urte ezaugarriak gehitu dizkiogu. Izan ere, Olentzeroren istorioa kontatzeaz gain, euskal kultura eta mitologia sustatzeko aukera ona izan zitekeela iruditu zitzaigun.

«100 bat pertsonak parte hartzen du, eta herri osoari zabalik dago»

Gainera transmisio hori modu tradizionalan egiten dugu: ahozkotasanaren bidez eta modu antzezatuan.

—Herria nahiko inplikatu da, ezta?

—Bai, 100 bat pertsonak parte hartzen du, belaunaldi ezberdinekoak. Herri osoari zabalik dago, edozeinek parte har dezake. Herritarren konpromiso barik ez dago Olentzero antolatzerik, eta zorionez, momentuz belaunaldi barriak ere inplikatu dira. ○

Kopiak **SALGAI**
UK aldizkariaren bulegoan



Martikoena 16,
2. solairua
Algorta (Getxo)

Alangoko
Osasun Zentroaren alboan

Urbe Kostako aldizkariaren ekoizpena **UK**

OSTA BIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati
OPARIAK MODA GAZTEA



Abant

Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa

Ikaskuntzaren Zailtasunak
(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Basarrate 20 lonja 48991 (Algorta-Getxo)
Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
- ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



XV. PERRETXIKO ASTEA ABIAN DA PLENTZIAN

Perretxiko astea ospatuko dute Plentzian urriaren 24tik azaroaren 6ra arte. Hamabost urtez ospatu dute, eta hainbat ekimen antolatu dituzte: aste osoan argazki erakusketa egongo da ikusgai Kultur Etxean, azaroaren 2 eta 3an hitzaldiak antolatu dituzte eta azaroaren 6an, barriz, egun handia ospatuko dute. Besteak beste, perretxiko dastatzeak eta lehiaketa egongo dira.

TXINERAZ BERBA EGIN GURA DUZU PLENTZIAN?

Goñi Portalek eskainiko duen ikastaroari esker, txinatar hizkuntza ezagutzeko aukera izango duzu. Urrian eman behar da izena, eta eskolak azarotik ekainera arte egingo dira, barikutan 17:00etatik 19:00etara. Erroldatuek 120 euro ordaindu beharko dute, eta plentziar ez direnek, barriz, 140. Halaber, argazkigintza-ukituak egiten ikasteko tailerra ere antolatu du Goñi Portalek. Azaroan izango dira eskolak, KZgunean, 15 euroren truke.

ETXEBIZITZEN INGURUAN GALDEZKA URDULIZEN

Etxebizitza arloan herritarren beharrianak zeintzuk diren ezagutzeko asmoz, Urdulizko Udalak galdeketa abiatu du. Ikerfel enpresa da galdelegiaren arduraduna, eta hainbat urduliztarri telefonoz deitu diete, euren iritzia jasotzeko. Udalaren arabera, inkesta honen bidez, udal plangintza herritarren kezka eta eskaeretara egokituko dute.

MANKOMUNITATEA

Bazen behin... Uribe Kostako XIV. Ipuin Lehiaketa!



8 eta 18 urte arteko gazteek parte hartu ahal izango dute

Euskaraz idatzitako ipuin lehiaketa antolatu du hamalagarrenez Uribe Kostako Mankomunitateak, 8 eta 18 urte arteko gaztetxoentzat. Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizen bizi edo bertako ikastetxeren batean ikasten dutenek izango dute aukera parte hartzeko. Gazte bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du, eta gaia librea izango da.

Bost kategorია zehaztu dituzte: lehen hezkuntzako 2. zikloa (lanen luzera 1-3

orrikoa), LH 3. zikloa (2-4 orri), DBH 1. zikloa (3-5 orri), DBH 2. zikloa (3-6 orri) eta 16 urtetik gorakoentzat (4-8 orri). Ipuinak azaroaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira, Mankomunitateko egoitzan. Bestela, Kultur Etxeetan ere uzteko aukera egongo da. Trukean, parte-hartzaileek hainbat sari izango dituzte zain: lehenengo hiru kategoriatako txapeldunek dirua jasoko dute, eta beste bi kategorietakoek, barriz, ordenagailu eramangarri bana. ○

Urr. 24 - Aza. 11

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Bosteko.** Urriaren 31 arte, Algortako Torrene aretoan.

LEIOA

► **Bosteko.** Azaroaren 3tik aurrera, Kultur Leioan.

PLENTZIA

► **Perretxiko Astea.** Azaroaren 6 arte. Goñi Portalen.

GORLIZ

► **Ibaialde.** Azaroaren 10etik aurrera. Erakustaretoan.

ERANDIO

► **Erandioko V. Argazki Lehiaketa.** Azaroaren 11 arte. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean.

ANTZERKIA

GETXO

► **Nelson Calderon kolonbiar ipuin kontalaria.** Urriak 27, 18:00etan. Villamonteko haur-liburutegian.

GORLIZ

► **Zirika Zirkus.** Urriak 29, 18:00etan. Gazte Topalekuan.

ERANDIO

► **Zoo.** Urriak 29, 19:30ean. Altzagako azoka zaharrean. 5 euro.
► **Amor al fresco.** Azaroak 5, 19:30ean. Astrabuduko Kultur Etxean. 2 euro.

LEIOA

► **No me hagas daño.** Azaroak 4, 20:30ean. Kultur Leioan. 12 euro.

SOPELA

► **Kontu kontalaria.** Azaroak 6, 18:00etan. Kurtzio Kultur Etxean.



Tapia eta Leturiak kontzertua eskainiko dute azaroaren 4an

► Jardunaldiak

Lutxanako gudari buruzko jardunaldiak

Duela 175 urte gertatu zen Lutxanako guda, 1836an, Karlisdetan. Bilbora iritsi aurretik guda garrantzitsua gertatu zen eta jardunaldiak prestatu dituzte gertakariari buruz gehiago ikasi guran. Berbots Erandion Euskaraz taldeak antolatu ditu eta azaroaren 2tik 4ra izango dira. Hiru egunetan ikusgai egongo da Altzaga ikastetxeko umeez egindako erakusketa, baina barikuan, hilak 4, izango dira ekintza nagusiak, bi hain zuzen. Batetik, Aitzol Altuna historialariak *Karlistak eta independentistak Lutxanako gudan* izenburudun hitzaldia eskainiko du Altzagako erakusketa gelan, 19:30ean. Bestetik, Tapia eta Leturiak kontzertua eskainiko dute azoka zaharrean, 22:30etik aurrera.

• **Non:** Altzagan • **Noiz:** Azaroaren 2tik eta 4ra

MUSIKA

GETXO

► **Aste Korala.** Urriaren 26tik 28ra, 19:30ean. Algortako El Redentor elizan. Doan.
► **Mastretta Sextet.** Urriak 29, 20:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 8/10 euro.

BERANGO

► **Xabi Aburrizaga & Band.** Urriak 29, 19:00etan. Berango Antzokian.

LEIOA

► **Kroke eta La Musgaña.** Azaroaren 11n, 21:00etan. Kultur Leioan. 22 euro.

ZINEMA

GETXO

► **Zineforuma: Los colores de la montaña** dokumentala. Urriak 26, 19:00etan. Algortako Kultur Etxean.

► **Zine-kluba: También la lluvia.** Urriak 28, 21:00etan. Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.
► **Kung Fu Panda 2.** Urriak 30, 17:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,10 euro.

SOPELA

► **Sukalde kontuak.** Urriak 28, 19:30ean. Kurtzio Kultur Etxean. Doan.

LEMOIZ

► **Betizu eta xangaduko misterioa.** Urriak 29, 18:30ean. Kultur Etxean.

BERANGO

► **Zigortzaileak.** Urriak 30, 18:30ean. Berango Antzokian. Doan.

BESTEAK

ERANDIO

► **Areatzara urteera.** Urriak 29. Erandioko mendigoizaleak taldeak antolatuta.

► **Urederraren iturburura argazki urteera.** Urriak 31. Takolos Radio Klubak antolatuta.

GETXO

► **Tailerra: Kolonbiako mitoak eta elezaharrak.** Urriak 28, 18:00etan. Algortako Kultur Etxean. Doan.

► **Tailerra: Kolonbiako gastronomia.** Urriak 29, 11:00etan. Areetako La Sartén de Cordelerian. 5 euro.

► **Tailerra: Kolonbiako dantzak.** Urriak 29, 18:00etan. Algortako Geltokia plazan. Doan.

GORLIZ

► **Sabel Dantza ikastaroa.** Azaroak 5, 19:00etan. Gazte Topalekuan.


BERANGO

► **Perretxiko Eguna.** Azaroaren 11n urteera perretxikoak biltzera eta 12an erakusketa.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA


BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA


[albuma]



Herri-panelak

Internet eta sare sozialen aroan bizi garen arren, gure herrietako hormek informazioz josita jarraitzen dute. Udalek sortutako panelak ez ezik, herri-panel inprobisatuak sortzen dira han eta hemen; dendetako eskaparateetan, faroletan, telefono kabinetan edo horma deigarrietan. Bertan lekua konpartitzen dute euren artean oso ezberdinak diren karteak: lan eskariak, publizitatea, afixa politikoak, eskelak...

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Muruko putzua

hilabete geroago non dago?

Orain zenbaki bi atera genuen Andra Mariko putzu honen irudia. Esan genuen betidanik egon dela putzua inguru hartan; letra hauen gainean ikus dezakezu argazki hura. Aipatu genuen ere Lurralde Zati Planaren aurkako kanpaldia handik hurbil egin zutela eta galdera bat plazaratu: zer gertatuko ote da putzuagaz eta gisako parajeakaz? LZPk gertatu denagaz harremanik daukan ez dakigu, baina hilabete baten buruan horrela topatu dugu putzua, siku eta lurrez beteta. Onda-makinaren bat sartu ote da eta putzua estali? Nork daki? Baina itxura penagarri hau dauka. Areago, desagertu egin da, putzurik ez dago orain.

ASIER MENTXAKA

[berbetan]

Taupadaka minduta zeudenak esnatu zituen Bilboko Errekalde auzoko eraikin magiko batek orain 13 urte. Eskuak batuz eraiki zuten, irribarrez, kolorez, musika goxoaren erritmora. Garabien beso luzeek hormak, rokodromoa, eszenatokia eta antzerki gelak bota zituzten irailan. Hala ere, Kukutzako oihartzuna inoiz baino biziago dagoela erakutsi dute azken hilabeteotako mobilizazioek. Badaude eraikin baten jabe izan barik erabiltzea delitu dela uste dutenak. Ez da hori Aritz Gardoki (Bilbo, 1983) eta Igor Uriberen (Bilbo, 1981) iritzia. Kukutzako Asanbladako eta Okupazio Bulegoko kideak dira hurrenez hurren. Utzarazpenaz, egoera sozioekonomikoaz, okupazioaz eta proiektu autogestionatuez berba egin digute gazte bilbotarrek; baita horren guztiaren atzean ezkututzen den herri iraultzaz eta ametsen indarraz.

Igor Uribe Aritz Gardoki

Okupazioa ez da delitua

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—13 urte beteta zituen Gaztetxeak; asanblada-dinamika, tailerrak, musika-jaialdiak, hainbat talde... bat-batean zurrunbilo itzela sortzen da, medioetan oihartzun handia duena: kaleratzea, erresistentzia, Ertzaintzaren jarrera, Azkunaren erantzuna... Denbora tarte bat pasa denean, zelan ikusten duzue bizitakoa?

A.G.—Gauza bat beti izan duguna presente eta kanpotik etorritako brigadistek komentatu digutena da, ikusita uztailean eta abuztuan bertan egon ginela 24 orduz oporrik hartu barik eta egoera larrian, beti irribarretsu egon garela. Oso arraroa izan da eta gu behintzat horrekin geratzen gara. Oso ondo pasa dugu denbora honetan, ez bakarrik 13 urteotan baizik eta azken prozesu honetan ere bai. Une latzak bizi izan ditugu, baina oso aberasgarria izan da gure artean ezagutzeko, antolakuntza arloan gehiago sakontzeko eta asanbladak aurrera eramateko metodologian sakontzeko. Nik behintzat oso aberasgarria ikusten dut.

—“Gaztetxea gara” eta “Kukutza aurrera” mezuak Euskal Herri zein mundu

mailako eztabaida bihurtu dira. Zergatik uste duzue sortu dela fenomeno hori?

A.G.—Egoera sozioekonomikoak lagundu egin du. Orain gutxi Udal hauteskundeak izan ziren eta eraldaketa sozioekonomikoaren eztabaida mahai gainean zegoen. Nik behintzat uste dut Kukutza okupatutako gunea denez eta jabego pribatuaren kontra egiten duenez, asko egin duela azpian zegoen auzia azaleratzeko. Bestalde, azken 13 urteotan lan askotxo egin dugu eta asko saiatu gara komunikazio arloan dana behar bezala kaleratzeko. Nazioartetik jende

“Uztailean eta abuztuan bertan egon gara 24 orduz egunero, baina beti irribarretsu; horrekin geratu gara”

asko hurbildu zaigu gurekin lan egiteko prest; eratu diren harreman horiek guztiek lagundu dute auzoan, Bilbon, Bizkaian, Euskal Herrian, Espainiar Estatuan eta European eztabaida pizten.

—Espero zenuten erantzun hori?.

A.G.—Hasieran agian ez. Nahi genuen,

baina ez genuen espero. Euskal Herri mailan Gaztetxeen alde genituen manifestazio erreferentzialenak Euskal Jai eta Bilboko Gaztetxearena ziren. Aurten jende gehiago egon da Kukutzako manifestazioan Bilbokoan baino. Horrek esan nahi du, edo gehiago garela Bilbon edo jende askoz gehiago dagoela Gaztetxeen defentsan eta eraldaketa sozioekonomiko baten alde.

—Erantzuna ikusita ausartuko zinatekete esaten iraultza garaian bizi garela?

A.G.—Kukutzan ikusi dugu eta beste gertaera askorekin ikusten ari gara.

Azken hilabeteetan, M-15 mugimendua, Bilduren zurrunbiloa... gauza asko mugitzen ari dira mundu osoan. Teknologia berriek gainera, lagundu dute ondo egindako lana zabaltzen eta mobilizazioetara gero eta jende gehiago ekartzen.



I.U.—Nik uste dut Kukutzaren kasua berezia dela. 13 urte hauetan herri mugimendurako zein Bilboko Okupazio Mugimenduarentzako erreferentea izatea lortu du. 13 urteko uzta izan da, ez soilik kanporatzearen emaitza. Kukutza Errekaldeko Gaztetxea izan da eta izango da, baina aldi berean Bilboko Gaztetxea da. A.G.—Kolektibo askoren elkargunea izan da. Herri-bazkariak, kontzertuak... jendarte zabalak erabili du. Bilboko Gaztetxea izan da, Bilbon dauden beste Gaztetxeak kontuan edukita, noski.

—Zein puntutan zaudete momentu honetan Kukutzan lan egiten duzuenak? A.G.—Argi daukagu inflexio puntu bat eman dela eta etorkizunera begira gaude. Zein proiektu, nolakoa izan behar duen... eta noski okupatzeko gune bila. Errekalden badaude gune asko, baina 1995ean Mikel Ociok HAPOrekin Bilboko industri zoru guztia eraikigarri bihurtu zuen eta eraikin guztiak egoera berean uzten ditu. Horregatik, gure estrategia zein izango den ondo definitu behar dugu. Baina itxaropentsu eta gogotsu gaude!

—Jendeak etsi duela nabaritu duzue ala lagun gehiago batu dira borrokarak? A.G.—Jendea gehitu egin da, behintzat mugimendura; ekimenetara etortzeko jendea biderkatu egin da. Baina, argi daukagu, asanblada, lanerako dena, gune egonkorra galtzean dispertsatu egin dela. Lagun asko aldiz, asanbladan finkatu dira. Orain asanblada itxi-ireki horretan lanean gaude, dagoen jende mordo hori berriro sar dadin.

—Historian zehar, Okupazio Mugimenduak, Gazte Asanbladak eta Gaztetxeek jende asko mugitu dute. Non uste duzue dagoela horren gakoa? I.U.—Euskal Herrian betidanik izan dugu herri mugimendu eta sare sozial oso anitza eta indartsua, herrian oso errotuta egon dena arrazoi politiko eta historikoak direla-eta. Oso txertatuta egon den mugimendua Gaztetxeena izan da; ez dakit

zenbat dauden Euskal Herrian. Kukutzaren kasuan, Errekalderi eman dion biziak egin du berezi. Errekalde auzoari errespetuz osoz, baina auzo horretan erakargarri zen bakarra Kukutza zen. Jende asko etorri da Errekaldera Kukutzagatik: hitzaldietara, asanbladetara...

A.G.—Auzoko jende askok esaten du: “Orain jendea zertara etorriko da Erre-

“Auzoko jende askok esaten du: ‘Orain jendea zertara etorriko da Errekaldera?’ ”

kaldera?”. Erdigunera bai, Alhondiga edo Guggeheim dagoelako, Alde Zaharrera tragoxka hartzen edo Santutxura bertan egiten dutelako lan. Baina Errekalden ez dago lanposturik, ez dago fabrikarik. Gaztetxerik gabe Errekalde lo egiteko auzo bihurtuko litzateke, Miribilla antzeko bat.

—Hipoteken garaian bizi gara; etxebizitza jabegoaren ideia oso barneratuta daukagu. Nola azaltzen zaio gaur egungo gure inguruko biztanle bati okupazioaren filosofia?

I.U.—Gaztetxeen kasuan, urte askoan mugimendu oso errotua izan da Euskal Herrian. Etxebizitzaren kasuan, nahiz eta etxe okupatuak egon, horretan ez da lortu antolakuntza kultura sortzea: egitura bat sortzea, foroak izatea gauzak eztabaidatu

“Okupazioaren helburu gorena okupatzeko beharrik ez izatea da, eskubidea bermatuta dagoelako”

ahal izateko... Gaztetxe mugimenduari alderatuz makalago ibili gara etxebizitzekin. Urte askoan egon dira okupak, baina mezua zabaltzean huts egin dugula uste dut.

A.G.—Euskal Herrian etxebizitzari dagokionez egon den erreferente nagusia berria izan da; hori belaunaldiz belaunaldi

oinordetzan hartzen zen. Industrializazio garaian etxea erosteko ideia zabaldu zen. Jabegoaren ideia oso errotuta dago. Gainera, kontuan izan behar dugu gizarte mota bi daudela, bat herrikoia eta beste burgesagoa. Azken horrek jabego pribatuaren filosofia oso errotuta dauka eta kanpotik heldu zen jende guztia ildo horretara batu zen. Nik ez dut uste etxe-

bizitzaren okupazioaren arloan lan gutxi egin denik, baina oso zaila da filosofia aldatzea. Bilbon gero eta errazagoa bihurtzen ari da gero eta metropoli handiagoko delako eta jendea irekiagoa da.

I.U.—Horrez gain egoera sozio ekonomikoa asko laguntzen ari da. Lehengoan irakurri nuen EAEn egunero zazpi utzarazpen daudela. Azkenean, okupazioa zerbaiten ondorio bezala ulertu behar dugu. Zeren ondorio? Etxebizitza politikak huts egiten dute, egia esan, ez dakit egon direnik ere. Etxebizitza eskubidea bermatzeko ez dakit zerbait egin den, baina egitekotan oso gaizki egin da. Horren ondorio logikoa da egoera ikusita eta Bilbon adibidez 20.000 etxe huts daudela jakinda, okupatzera animatzea. Okupazioaren helburu gorena, okupatzeko beharrik ez iza-

dira. Alde batetik, galdera juridikoak: gutunak, epaiketen inguruko galderak, salaketak... Okupazio Bulegoan abokatua daukagu, tartean Kukutzako kasua eraman duena, oso jantzia kasu hauetan. Bestetik, galdera teknikoak daude: zer egin dezaket, noiz den momentu egokiena sartzeko, etxe hau bestea baino egokiagoa da... iritziak ematen ditugu. Azken finean gu ere ikasten ari gara; gure esperientzien arabera iritzia ematen diegu.

—Etxebizitzak okupatzen dituen jenderik badago gure inguruan?

I.U.—Bai, jende asko dago; seguru, asko, uste duguna baino askoz gehiago. Bilbon, Ezkerraldean batez ere... Aurrekoarekin lotuta, egoera sozioekonomikoa arekin, gero eta jende gehiago dagoela ikusten dugu. Okupazioak hanka bi ditu. Alde batetik, arazo kolektibo bati era kolektiboan aurre egiteko helburua; irtenbidea elkarrekin bilatzen badugu indar gehiago izango dugu. Bestetik, norbere proiektu pertsonala, bikotean zein taldean aurrera eramateko aukera izatea. Aukera baliagarria eta guztiz zilegia da. Askotan uste dugu etxe okupatuek ez dutela etorkizunik eta ez direla egonkorrak. Ni neu aurreko etxean lau urtez egon nintzen inolako arazo barik. A.G.—Batuetan jabeekin akordioetara hel daiteke. Momentuan jabeek ez dute

alokatu nahi eta norbait sartzean jabearekin kontaktuan jarri eta akordio batera heltzen dira. Jende askok okupatzen du behartuta ikusten duelako bere burua horretara.

I.U.—Zergatik uko egin akordio bati? Etxean gertatzen denaren arduradun egiten gara. Batuetan bi edo hiru etxebizitza dituzten jabeak aurkitzen ditugu;

“Gaztetxeak daude beharrezana dagoelako atzean, herriak eskatzen ditu”

baina ohikoena, okupatzen den etxebizitza etxe asko dituen jabe batena izatea da. Bilboko Alde Zaharrean adibidez Bizkaiko oligarkiako betiko familia asko dago, hainbat eta hainbat etxe dituztenak jabegoan. Espekulatzailer horien aurka borrokatzen saiatzen gara, jende horrekin konfrontazio ideologikoa sortuz. Kukutzan egin zen hitzaldi batean Nekane Juradok azaldu zuen diktadura garaian ere gauzak beste modu batean egiten zirela. Frankok, bere garaian, etxebizitzagatik ordaintzen zena soldataren %15 baino gehiago izatea debekatzeko zuzen legea ezarri zuen. Hori Frankoren garaian. Marinaledaren kasua ere badaukagu inguruan, oso interesga-

ria dena. Askotan ikusten dugu, beraiek sortutako legeak beteta soilik egoera asko aldatuko liratekeela. Hortik hasi beharko litzateke.

—Azken mezurik...

—Gaztetxe bat bota dute, Kukutza bota dute. Azkenengo hileotan ikusi dugu Zallako Gaztetxea erre zutela, Plentziakoa hustu... Baina aldi berean Eibarreko

Gazte Asanbladak Kukutza antzeko eraikin bat okupatu duela edo datorren astean Ordiziko Gaztetxeak 25 urte beteko dituela. Gazte Asanblada askok deitu digute Gaztetxeak martxan jarri nahi dituztelako beraien herrietan. Gaztetxe bat bota dute, baina berri asko sortzen ari dira. Azken finean Gaztetxeak daude beharrezana dagoelako atzean, herriak eskatzen ditu. Kukutzaren kasuarekin autoantolakuntza lantzeaz gain beste herri batuetan motibazioa lantzea lortu dugu. Komunikabideetan eta kalean eztabaida dago eta hori guretzat oso garrantzitsua da guk badakigulako arrazoia daukagula. Gure ahotsak itzali nahi dituzte, baina kontrako efektua lortu dute. o

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail..... Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bateuro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□





Bizikleta

Europako Mugikortasun Iraunkorraren astea aitzakia hartuta, lehen argazki lehiaketa ospatu barri du Ekogunek. Gaia “bizikleta” izan da, eta Uribe Kostako argazkilariek ez ezik, Estatu osoko 150 lagun baino gehiagok parte hartu du. Irabazlea Mikel Planells izan da, ‘Cuesta abajo’ argazkiagaz (37. orriko goialdean ikus dezakezu), eta lanek kalitate handia izan dutenez, beste hiru sari sortu behar izan dituzte. UK-ra argazki bilduma txikia ekarri dizugu, baina erakusketa osoa ikusi gura baduzu, zain izango dituzu urriaren 24tik 30era Gornizko Kultur Etxean, eta azaroaren 7tik 15era Plentziako Goñi Portalen.

Argazkiak: **Ekogune**







Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea > Osoko Batzorde barriaHerri txikiak, zerbitzu guztiak;
Mankomunitatean 1989tik ari dira lanean

Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizek osatzen dute Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea. Baina zein da bere zeregina? Osoko Batzordearen osaketa aldatu barri da, goazen hobeto ezagutzera.

Uribe Kosta ez al dute osatzen gure eskualdeko herri guztiek? Gauza bat da Uribe Kosta, eta bestea Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea. Askok ez du ezagutzen ere. Zergatik sortu zen, zertarako? Zein da bere egitekoa?

Lemoiz eta Berango arteko herriek osatzen dute Zerbitzu Mankomunitatea: Lemoiz, Gorniz, Plentzia, Urduliz, Barrika, Sopela eta Berangok. Herri txikiak ez benetan zaila da hainbat zerbitzu eskaintzea, ez

daukate eta herri handiek beste baliabide. Gizarte ekintza arloan zerbitzu hobea eman zitekeen batera, horregatik elkartu ziren zazpi herriak 1989an.

Hasieran oinarriko batasun soziala zen, Mankomunitatea 1992ko martxoan eratu zen juridikoki. Gizarte ekintza eta kontsumo arloetan lan egiten zuen orduan; apurka eta urteek aurrera egin ahala, beste arlo batzuk jorratuz joan da. Gaur egun hainbat sail dago: gizarte ekintza eta iraunkortasuna dira handienak eta menpeko azpisailak dauzkate. Gainera, euskara, berdintasuna eta kontsumo sailak daude.

Sail gehienetan sartzen dira herriak, baina euren kabuz ere gauza ditzakete ekintza zehatzak arlo batzuetan. Aipatzekoa da gizarte ekintza eta kontsumoaren kasuan, ordea, Mankomunitateko teknikariak hurbiltzen direla herri guztietara,

herriarrei zerbitzu hobea eskaini asmoz.

Osoko Batzordeari dagokionez, zazpi udalerrietako 15 zinegotzik eta alkatek osatzen dute, biztanleriaren arabera banatuta: hiru ordezkari daukate Berango,

Sailak: zerbitzu sozialak, iraunkortasuna, berdintasuna, euskara eta kontsumoa

Gorniz eta Sopelak, bi Plentzia eta Urdulizek eta bana Barrika eta Lemoizek. Udabarrian egin ziren azken udal-hauteskundeak, ondorioz, Mankomunitatearen Osoko Batzordea eraberritu dute. Orain bi aste eratu zituzten arlokako batzordeak. Presidente barria da Anabel Landa,



Saria jaso du Ukanauto proiektu barriak

Berangoko alkatea. Zortzi boto lortu zuen berangozarrak eta Isabel Zarauza plentziarrak 2; beste hiru boto zuriak izan ziren; 15 kideetik 13k eman zuen botoa.

Mota askotako ekintzak garatzen ditu, batzuk zehatzak eta ikusgarriak, beste batzuk ez horren ikusgarriak (zerbitzu sozialak e.a.). Iraunkortasun arloan, adibidez,

ezagunak dira Bizimeta bizikletak alokatzeko zerbitzua edota olio birziklatzeko gailuak. Baina bi egitasmo aitzindari garatzen ditu Mankomunitateak: bizikleta elektriko eta auto mailegua. Ukanauto izena dauka bigarrenak, ibilgailu partekatu zerbitzuak; hibridoak edo erregaidunak aloka daitezke eta DEIA Hemendik Berrikuntza saria

lortu du.

Herri txikiak izanagatik beharrezko zerbitzu guztien jabe izan behar dute, bide horretan dabil Mankomunitatea. Horregatik bulegoa aldatu gura dute lege-gintzaldi honetan, zerbitzu osoagoa eta hobea eskaintzeko. Norbaitek esan zenez, baliabide txikiak, ideia handiak. ○

MANKOMUNITATEAREN OSAKETA:

- Ainhoa Malaxetxebarria (Gorniz): Bildu
- Alain Golaraz (Sopela): Bildu
- Anabel Landa (Berango): EAJ
- Arantza Etxebarria (Gorniz): EAJ
- Dolores Malo de Molina (Berango): PP
- Isabel Zarauza (Plentzia): Independentea
- Itxaso Martín (Gorniz): EAJ
- Izaskun Zubiaur (Berango): EAJ
- Javier Bilbao (Urduliz): EAJ
- Javier Martínez (Barrika): Bildu
- Jose Ignacio Olea (Urduliz): EAJ
- Ramón Anasagasti (Plentzia): Independentea
- Saioa Villanueva (Sopela): Bildu
- Teresa Fernández (Sopela): PSE
- Unai Andracka (Lemoiz): EAJ

Anabel Landa > Uribe Kostako Mankomunitateko presidentea

“Egoera kontuan hartuta, iraunkortasuna bultzatu behar dugu, baina arreta berezia ipini behar diogu gizarte ekintzari”

—Sailkako batzordeak eratzekotan daudela, zelan aurre egitera zoaz presidentziari?

—Ilusioagaz, Mankomunitateak asko ematen du, baina beste asko emateko dauka. Udal desberdinak daude, baina suposatzen da antzeko arazoak daukatekela. Udaletan alde politikoa egon daiteke, baina hemen arlo zehatzetako ekintzak eta arazoak konpontzen ematen dugu denbora gehien. Egungo egoera eta kri-

sia kontuan hartuta, iraunkortasuna bultzatuz jarraitu behar dugu, baina arreta berezia ipini behar diogu gizarte ekintzari, hobetu beharrean egoera okerrera doa-eta.

—Landa eremuan zerbitzu sozialak indartu gura ei dituzu?

—Kukullaga baserriagaz gertatu dena buruan, landa eremuaren argazkia egin behar dela uste dut, eremu horiek zelan dauzkagun eta zer behar duten jakiteko,

batez ere adinekoei dagokienez.

—Bestelako arloetan, zer asmo edo ideia daukazu?

—Oraindino sailkako batzordeak osatzeke daude eta zehaztasunik ez daukat. Lehenik egoera aztertu, eta ondoren erabaki beharko dugu. Dena dela, argi dago gauden lokal hau txiki lotu dela, zerbitzua haziz joan delako. Urdulizera aldatzeko asmoa daukagu, eta uste dut legegintzaldi honetan gauzatuko dela.

Datozen urteotan garatu beharreko hainbat ideia dauka buruan presidente barriak

Horretarako beharrezko dirua daborduko aurreztuta dauka Mankomunitateak, urtez urte gorde du-eta. Helburua da zerbitzuak era egokiagoan ematea. Arloetako gai zehatzei buruz ideien bat badaukat, baina kontseiluak eratu, martxa hartu eta egoera aztertu arte ezin zehaz dezaket ezer. Iraunkortasun arloan agian errazagoa da argazki orokorra egitea, baina zerbitzu sozialen kasuan ez da horren erraza, pertsonalagoa da eta. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Bertsolaritzan barrena

Asier Altunak zuzendutako **Bertsolari** filma zinemetan ikus daiteke urriaren 16tik



Filmak 90 minutu irauten du

“**Bidaia bat-bateko** poesian, isiltasunean eta arte biluzian barrena”. Horrela aurkeztu du Asier Altuna zinemagile bergararrak plazaratu barri duen *Bertsolari* filma. Donostiako Zinemaldiaren sail ofizialean estreinatu ondoren, 90 minutuko film-luze dokumentalak zinema aretoetara salto egin zuen urriaren 16an.

Filman hainbat bertsolari agertzen da: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Jon Sarasua edo Miren Amuriza, adibidez. Era berean, ahozotasunean aditua den John Miles Folley-ren eta Joseba Zulaika antropologoaren adierazpenak jasotzen ditu. Altunak aspaldi zuen ber-

tsolaritzari buruzko film bat grabatzeko gogoia. “*Bertsolari txapelketako finalera joaten nintzenean hunkitu egiten nintzen. Beraz, bertsolariei buruzko film bat egin eta ikusleak hunkitzea lortuko banu, ahalegina egitea mereziko lukeela pentsatu nuen. Hori izan zen nire erronka eta horregatik erabaki nuen filma egitea*”. Filma sortzeko prozesuak ere ber-

Lujanbiok, Egañak, Sarasuak eta Amurizak parte hartzen dute

tsoak sortzeko prozesuagaz harreman zuzena duela nabarmendu du Altunak. Izan ere, inprovisatu ere egin dute, gidoia filma egin ahala idatzi, lehenik amaiera pentsatu -bertsolariek egiten duten bezala-, bertsoen egitura eta pelikularena alderatu, isiluneakaz eta biluztasunagaz jokatu. “*Batez ere intuizioak gidatu gaitu. Nora iritsiko ginen ondo jakin gabe, prozesuarekin gozatu dugu, eta bukatu dugunean izugarritzko poza sentitu dugu*”.

Zuzendari bergararra, dena den, ez da lumatu bako txorikumea, beste hainbat lan zuzendu baititu. Telmo Esnategaz, esaterako, *Aupa Etxebeste!* zuzendu zuen, eta beste hainbat film labur zuzendu ditu. ○

Info+: www.txintxua.com

70 talde zuzen-zuzenean

Zuzen-zuzenean zirkuituak kontzertuz beteko du udagoiena; Leioan ere eskainiko dituzte



Petik egin du aurtengo zirkuituaren kanta

Makina bat kontzertu izango dugu entzungai udagoienean Zuzen-zuzenean zirkuituaren eskutik. Eusko Jaurlaritzak, Kultura Live-k eta Euskadiko Soinuak-ek antolatuta, urri-urtarril bitartean 50 kontzertu inguru izango dira Hego Euskal Herriko kudeaketa pribatuko hainbat aretotan. Emanaldi bakoitzean gutxienez talde bik joko du, eta talde gehienak Euskal Herrikoak izango dira.

Besteak beste, honakoek joko dute: Atom Rhumba, Capsula, Delorean, El Columpio Asesino, Gatillazo, Gose, Go-

vernors, Iñaki Salvador, Joseba Irazoki, Ke-robia, Moby Dick, Ruper Ordorika, Split 77, Su ta Gar, Txarrena, We Are Standard eta Zea Mays. Atzerriko taldeei dagokienez, Kim Salmon & Kill Devill Hill, JC Brooks & The Uptown Sound eta Hamlet ariko dira. Guztira 70 talde baino gehiago. Azaro eta abenduan Leioako ‘Kalian’ aretoan kontzertu bi izango ditugu: azaroaren 10ean Andoni Arcilla Group eta Lekuak taldeak ariko dira, eta abenduaren 2an Jimmy Bidaurreta Group eta Igor Arzuaga. ○

Info+: www.zuzen-zuzenean.com

esan ozenki > sarean entzungai


Esan Ozenki diskoetxe historikoaren katalogo ia osoa entzungai egongo da hurrengo egunetan Spotify zerbitzuan. Entzuleek ‘streaming’ bidez doan entzun ahal izango dituzte Negu Gorriak, PILT edo DUT bezalako taldeen kantak. Horretarako, Spotify-k jolas bat proposatuko du: lau musikari eta adituk osaturiko playlist edo kantu zerrendak egin dituzte, zaleei ikusmiratu eta entzuteko aukera emanez. Lau lagun hauek Fermin Muguruza musikaria eta Jon Eskisabel, Roberto Herreros eta Xavier Cervantes musika kazetariak dira. Ondoren, euskal zigiluaren kantak beste 23 ataritan egongo dira entzungai. Esan Ozenki 1991. urtean jaio zen, eta hamar urte eta gero desagertu zen.

zentric > MTV sarietan

Beste nominazio bat jaso dute Zentric taldeko kideek. Honakoan, MTV Awards-etarako nominatu dituzte, Estatu mailako talde onenaren sarian. Aurrez aurre izango dituzte Russian Red, Vetusta Morla, El Pescazo eta Nach. Azaroaren 6an ospatuko da gala Belfasten, eta bertan jakingo dugu nork irabazi duen. Zentric-ek irabaztea gura baduzu, horretarako aukera izango dugu. Izan ere, zaletuek botoa eman dezakete. Zentric-en kasuan, hurrengo orrialdean zure botoa eman dezakezu: <http://es.mtvema.com/artistas/zentric>. Bitartean Gutxiak gidatutako taldeak ‘Conguito’s Caravan Tour’-egaz jarraitzen du, ‘Lady Gaga’ bere azken single-a lau haizetara zabaltzen.

diskoak

Lehetarazi edifizioak
Napoka Iria
Boniberenea produkzioak



Badago kalean Napoka Iria taldearen lan barria. Bilduma osatzen duten hamar piezetan gitarra elektriko bat, akustiko bat eta Miren Narbaiza eibartarraren ahots zirrargarria entzun daitezke. Grabazioan bertan egindako inprobisazio bi eta ukelelea eta kalimbas jotako kantu ezagun baten bertsio txiki bat ere sartu dute.

Bikote bat
Jabier Muguruza
Resistencia



Orain arte sortu duen lanik “erradikalena” da Jabier Muguruza musikariaren ‘Bikote bat’ lana. Piano eta akordeoiaren laguntza soilaz, irundarrak 11 kantu osatu ditu, baina beste hainbat lagunerekin laguntza jaso du: Bernardo Atxaga, Lourdes Oñederra, Harkaitz Cano e.a. Diskoa azaroaren 4an aurkeztuko du, Donostian.

Hiri hartan izan zen
Mikel Markez
Elkar



Bere bederatzigarren diskoa aurkeztu du Mikel Markez errenteriarak. 11 abestiaren bertso musikatuak eta poema musikatuak ageri dira, eta hainbat kolaboratzaile izan ditu: Eñaut Elorrieta, Uxue Alberdi, Erramun Martikorena e.a. Amerikar eragina nabaria da diskoan, besteak beste, Silvio Rodriguezen kanta bat euskaratu baitu.

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

etorri eta ikusi!!

MORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Eusko Herria kaleko bar) Tf. 94 491 68 05 Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu **%50eko** deskontua izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Auzo lanean, herria eginez

Auzolanaren kultura: bizirik beharrerako eta harremanetarako sistema

“Antolatuta dagoen herriak bere bila-kaeran enagiteko gaitasuna du, bere etorkizuna gidatzeko abalmena”. Ideia horretatik abiatuta jaio da UK-ko 201. zenbakian kultura atalean aurkeztu genuen Auzolan ekimena eta ideia horretatik abiatu da Jasone Mitxelorena nafarraren “Auzolanaren kultura- Iraganaren ondarea, orainaren lanabesa, etorkizunaren giltza” liburua idazteko. Urte bian Euskal Herrian diren auzolan esperientzien inguruan ikertu du Mitxelorenak; horiek aurkezteaz gain, gaur bizi dugun krisi sozio-ekonomikoari aurre egiteko tresna bezala aurkeztuko du herritarren arteko elkarlana.

Txalaparta argitaletxeagaz argitara eman du lana eta 22 euroan salgai dago

“Auzolanari duen balioa” aitortu gura izan dio Mitxelorenak liburuagaz

liburu-dendetan. Bai liburua aurkezteko, baita Auzolan ekimenaren zabalpena egiteko Euskal Herriko txokoetara hurreratu dira ekimenaren bultzatzaileak, baita Uribe Kostara ere.

“Auzolanari duen balioa aitortu” gura izan dio idazleak: “Talde gavela sentitzeak, gure beharrak asetzeko talde-lanean aritze-




Txalapartak argitaratu du Mitxelorenaren lana

ak ematen duen aukeraz ohartzeak”. Herrietako azpiegiturak eraikitzeke, hezkuntza sistema euskalduna abiarazteko, herri eta auzoetako jaiak antolatzeke... gure herrietako hainbat esparrutan erabili izan dugu auzolana euskaldunok. Baina, auzolana beharrak asetzeko tresna baino askoz gehiago dela azpimarratu gura izan du Mitxelorenak lan honeguz: “Lan egiteko eta inguruarekin harremanak izateko jokamolde jakin bat da auzolana”. Atzera begiratu etorkizunari aurre egiteko tresna bezala aurkeztuko du auzokideen arteko elkarlana. ◯

Info+: www.auzolan.info

liburuak



Scanner
Leire Bilbao
Susa

Poesia euskalduna dastatzeko aukera emango dizu beste behin ere Leire Bilbaok. Bere bigarren lan honetan poesia landuagoa aurkituko duzu. Sei ataletan banatuta dago liburua, gaien arabera. Familiatz, gizarteaz zein esperientzia pertsonalez hausnartu du Bilbaok.



Argi-itzalen neurria
Xabier Artola
Elkar

Poesia doinuagaz idatzitako kontakizunak batu ditu Xabier Artolak. Istorio samur bezain gordinak: gerrak urrundutako anaia bikien tragedia, euren etorkizunaz zalantzan dauden maitaleen pentsamenduak... Intentsitatea eta indarra transmititzen duten kontuak.

[kirola]

Dimas Ramos > Getxo Atletismo taldea

“Pistako obrak direla eta, 150 federatutik 55era igaro gara; eta umeak, 90etik 12ra”



1956. urtean, oztopoen 3.000 metroko espezialitatean Europako errekorra lortu zuen Ramosek

Sei hileko konpromisoa hartu zuen Dimas Ramos-ek Getxoko Atletismo taldearen zuzendaritzara heldu zenean. Honezkerok 26 urte daroa postuan, eta taldea atletismoaren mailarik gorenean kokatzea lortu du. Baina Fadurako pista-ko obrek gogor kolpatu dute taldea.

—Azkenean atletismo pista barria zabalduko da Faduran... irrikian egongo zara!
—Bai, azaro erdialdean erabiltzeko prest egongo da. Ia urte bi igaro dira... 2009. urteko abenduaren 8an pista itxi zen, eta hitzarmenaren arabera, 6 hilean amaitua egon behar zuen. Eta 23 daroaguz... Itxi eta lau hilera oraindino obrak hasi barik zeuden, eta obrak hain txarto egin zirenez, ia-ia dena barriro antolatu behar izan genuen.

—Horrek taldean eragin nabarmena izan du...
—Noski, kontuan hartuta zenbat urte daroagun pista horregaz, Getxok atletismoan duen indarra... Estatu mailan, *recordman* bat dugun talde bakarra gara; Ignacio Sola. Espainiako hirugarren izan

gara, ohorezko mailan urte asko egon gara... Eta Durangoraino joan behar izatea lehiatzeko... Errugby zelaian entrenamenduak egin daitezke? Ezin dira altuerajauziak egin, ezin da pertiga erabili... atera kontuak!

—Federatuen kopuruan igarri duzue...
—Bai, 150 bat federatu izatetik 55 izatera igaro gara. Umeetan, 90 genituen le-

«Tartana, pistak izango duen material barria, munduko onena da»

hen, eta orain 12. Eta azkenean kantitatea kalitatea da; 100 ume baditugu, 10 korrikalari on sortzeko aukera dago...

—Emaitzagaz behintzat pozik lotu zarete? Kolore berezia du gainera... urdina!

—Bai, pozik gaude, oso polita gelditu da. Gainera erabili den materiala, tartana, munduko onena da. Arazo bat dago bakarrik: pistak dituen marrek nahasmena sortzen dute. Kolorea Álvaro González zinegotziak hautatu zuen; berak eta alkatuek egindako lana eskertu gura dugu. ◯

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizoi moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETEKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
• IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Jon Ander Alcalde Etxeandia > garagardogilea

“Gurea ez da garagardo freskagarria nire ustez, dastatzekoa baizik”

Etxeandia garardaua ekoizten du Jon Ander Etxeandiak Urdulizen. Afizio moduan hasi eta daborduko saltzen hasi da eskualdeko zenbait taberna eta dendatan. Bost garagardo mota egiten ditu, probatu gura?

—Garardaua egiten duzu, zergatik izen hori?

—Kutsu lokala emateko, inguru honetan ardaia eta sagardaua esaten baita. Gainera, garagardoa hitza neologismoa da, hemen zerbeza esan zaio beti. Erakartzeko ere balio du.

—Zelakoa da?

—Bost mota ditugu, normalean lau egiten ditugu eta bosgarrena urtean behin. Europan oso gauza normala da garagardoari fruta sartzea eta guk basaranakaz egin dugu azken hori; Libe izena ipini diogu eta kupelean lau hilabete behar ditu. Beste laurak urte osoan egiten ditugu. Batetik, Lauaxeta garardau baltza. Bigarrenik Mattin Pirata, horia da baina alkohol asko dauka, bederatzi gradu. Hirugarrenik Mari dugu, horia normala, eta laugarrenik Antzonekoa, ilunagoa, zapore gogorragokoa. Gainontzeko garagardoek baino zapore sakonagoa daukate gureek, nire ustez ez da garagardo freskagarria, dastatzekoa baizik.

—Eta zer berezitasun dauka zuen garagardoak?

—Batetik, gurea malta da %100. Malta garagarra edo gariarena izan daiteke, garagardo industrialek %10 izaten du malta, eta gainontzekoa beste fekulak batzuk izaten dituzte: artoa, artoa edo patatarena izaten dira. Gureak ez, gurea malta da. Bestetik, esan behar da garagardo mota bi daudela: *lager* eta *ale*. Le-



Plentziako ur-azpiko bodegan sartu ditu garardau botila batzuk lau hilabetez

hena da normalean hartzen duguna, horia. *Ale* estilo zaharragoagaz egiten dute, antzinako legamiakaz. Antzinako era hau berreskuratu gura dut.

—Ontzeko zenbat denbora behar du garardauak kontsumitu aurretik?

—Horiak hilabete behar du gutxienez, ilunagoek denbora bat gehiago eta Libek

aurrera ardoaren prozesu bera du, baina laburragoa: fermentatu behar du eta gero ondu. Altzairuzko kupeletan egiten da gaur egun, bertan egiten du garagardoak 15 egun, eta beste 15 botilan, ontzeko; bertan egiten du gasa, txanpaina egiteko metodoa esaten zaio, gas naturala da. Esperimentu batzuk ere egiten nabil.

“Etxean txakolina eta sagardoa egiten genuen, eta nik garagardoa ere bai; horretaz bizitzeko aukera ikusi nuen”

lau hilabete. Baina asko irauten dute gero, ondo gordez gero. Ardoa bezala. Garrantzitsua da ondo zaintzea eta bertan ez ipintzea.

—Eta erraza al da garagardoa egitea?

—Infusioa da. Malta txikitu, infusioa egin eta muztioa ateratzen da. Gero lupuluagaz irakin behar da eta hortik

Batetik, egurrezko kupelean egiten ari naiz garardaua. Bestetik, Plentziako ur-azpiko bodegan sartu dut apur bat, ea zer gertatzen den.

—Nolatan zabilza honetan?

—Etxean txakolina eta sagardoa egiten genuen, nik garagardoa ere bai. Horretaz bizitzeko aukera ikusi nuen. ○

Fredi Paia

Denpore eta aro

Telebisiñoti esaten doskue denpora ona eta txarra daozela. Eguzkik urtean daunen denpora ona da eta auri badaragoio, ostera, txarra. Edadekok baie, sasoin sasoi in ber daule dineude, larreko eguzkik lurreri eragineko itzebagi eta noz urez-tatuko itxedoten ihertu dakezan landareri adi.

Gure eskualden *denpore* eta *aro* berbak ibiltzen direz auskere batuz *eguraldi* deretxonari esateko. *Denpora ona* esaten dako, eztaite telebisiñon eragin hutsez ala eurreti bere holan zalakon, hedoi bako egun eguzkitsuri, *eguzki zuriko egune* bere ixen leitike-na, argitesun handiko geue deskribiduteko *irergi zuriko* aitatzen dan lez. *Denporale*, barrez, auri, kaskagaragar edo abazuze etor-teri esaten dako. *Aro* berbek, zeruti datorrenaz ganera, beste gauze betzuk hartzen dauz kontuten. *Ereiteko aro ona* esakunek lurra- ren tenperature, urtaro, irergi edo uren ego- ere nahi eguzkin ganeko informazino emo- ten deusku. Ixen bere, beharren bat iteko *aro ona* egotek, horrek baldintza duztik betatuten direzela esan gure dau.

Hedoi arteti urtetan dauen eguzki gol- peri betzuten, eta sargoriri bestetan, *eguzki txangota* dineutse aitite amamek. Eguzkik erraz erreten daun azalari azal zuri esateko jasa badekotsegu bere, *azal urdin* dineutse edadekok. *Arrutze zuringokaz erremedio iten osten amak erreten nintzanen, ixen bere, beti ixen naz azal urdineko*. Horrez ganera *bero larri* esateko usadio bere sano zabaldu- te dau gure eskualden, bero handiko egune- ri esateko. Baso nahi menditen beharren ibilidik, abarobako lanetan jasan deudezan auri, bero larri, kaskagaragar edo haxeteri esateko *hamakatsu hozbero pasa duz* botan- deude, lehengo sasoi gogon deukezala. *Eguzki lamatan* egote, eguzkik beten joten daun lekun egote da. Lemuxen, eguzkipen deskantsun egoteri, *katun glorin egote* gei- tzen deutse gure lekuko batek.



“Batuz tximista danari justuri deretxo Uribe Kostatik Sollubeko bizkerretara”

Batuz ekaitza esaten dakonari *hedoi* ala *trugonade* esaten dako guren. Batuz tximista danari *justuri* deretxo Uribe Kostatik Sollubeko bizkerretara. Atxine itzeltasune emoten iaun justurik, eta etxe jo ze dein, edo jo ezteko, axkore iminten zan etxe- ko taitetuko gailurren azpin, duru beradi euka-

«Lemuxen, eguzkipean deskantsun egoteri, katun glorin egote geitzen deutse gure lekuko batek»

la. Ziri-miri berbe baten baizen giautan batun badu bere, *auri-ugerra* dineutse gure edadeko gehienek ortureko balio ez daun auriri. Indertsuau jausten danari *euri-lanpa- rra* eta horti gora *zaparrade* edo *etxala bota* entzun duz aldea-etxetan. Zeruti lehi inte datorren ureri *kaskagaragarra* dineutse Getxoti Barrikera eta *abazuze* Lemuxe inge-

run. Uden botaten badau *harri* deretxo, beste barik.

Goxen lantzarrak estalduten dauzen ur mintzeri *errusio* edo *garo* esaten dako. Haxek aitatzen hasite, esan ber du hamaka uzen mueta ezbardin batun duzela. Euren arten arrarona Gorlizen entzun nendun, iper haxeri esateko *Genaro haxe* esateutsen hango fameli betekok. Euren etxeti iperrera dau Genaron etxe, eta iper haxe handi dato- rren lez, hori uzena emoten deutse haxeri. Ikus zengien modure, haxek uzen sano ezbardinek koxten deudez, etxe baktotxen eurek ulertuteko modurik argien esaten- tse ta. Ezpabere, iperreko haxe hotzari esate- ko *iper-haxe*, *norteko-haxe*, *leixaxe*, *haxe berde* eta *haxe baltza* berbak ibiltzen direz. Hego haxeri, ostera, *haxe-iherra*, *herriko- haxe*, *embra-haxe*... esaten dako. Mendebalari *ben- dabala*, *itosoko-haxe* nahi *gallegu-haxe* dere- txo. Akabateko, sortaldeko haxeri *frantsesa* eta *matacabras* esaten entzuten ixen dot. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erretegia
 Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantsolaetxe.com



La Triangu.
 Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
 Hanburgesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



motaTx txakolina
 Leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
 C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 46 61



CAFETERIA COSMOPOLITA
 Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
 Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL
 Eguneko menua
 Menu bereziak
 Karta
 Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
 LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Erraza eta goxo-goxoa

Pikillo piperrez betetako antxoak



Pintxo egiten hasi orduko beharrezkoa da antxoa ondo garbitzea

Pintxo goxo-goxo prestatzeko, bazuetan ez da beharrezkoa lar konplikaztea eta errezeta zailak ikastea. Betiko pintxoek arrakasta izaten dute gurean, eta gehienek, gainera, ez dute lan handirik eskatzen. Portu Zaharreko lagunek ale honetarako prestatu diguten pintxoak dugu horren adibide argia: pikillo piperrez betetako antxoa.

Zartagina hartu baino lehen, funtsezkoa den urratsa egin beharko dugu: antxoak ondo garbitu. Horretarako, burua eta erdiko hezurra kendu beharko diegu, eta ezkatat garbitu. Ondoren, antxoa bat hartu, eta azala beherantz jarriko dugu. Gainera pikillo piperra jarriko dugu, eta txapela legez beste antxoa bat jarriko dugu. Goiko antxoaren

kasuan, azala gora begira utziko dugu. Irin-arrautzetan sartu beharko dugu horren ostean, eta amaitzeko frijituko dugu. Frijitu eta gero, aukeran, antxoak lehortzeko-paperaren gainean utz ditza-kegu; horrela, beharrezkoa ez duen olio botako du. Amaitzeko, ogi xerra baten gainean jarriko dugu, eta dekorazio legez, pikillo piper zati bat jar dezakegu pintxoaren gainean, gura dugun forma emanez, eta kitto!

Pintxo honen sekretu bakarra erabiltzen dugun antxoa mota da. Tamaina ertaina izan behar du; ez oso handia ez oso txikia. Eta Kantaurikoa baldin bada, askoz hobeto! o

Osagaiak: antxoa bi, pikillo piperra, irina, arrautza, olio eta ogia.



LAIAK Taberna




BASARTENA
URDULIZ
 Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria
ARTESANA
 LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
 Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
 Alangobarri 10, ALGORTA
 Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia
frontoi partikularra
 Aita Gotzon 4, URDULIZ
 Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 -ALGORTA
 Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Ariiluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Turikaldoi

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarera, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industriak garbitzea
- Lan osagarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Urtea badoa aurrera eta atzean lotzen ari da uda goxoa. Laster batean dator San Martineko hozkirria, baina txorizo eta odolostegaz bapo berotuko zara.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Gernikako azken astelehena ala azkenaurrekoa egingo duzu, betiko legez? Biharamunean astelehen galanta eduki gura ez baduzu tentuz ibili txakolinagaz.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Ederra egin duzu! Exce barria margotu gura eta zure burua da margotu duzuna. Abileziarik ez baduzu, utzi lan hori profesionalak egin dezaten.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Hotz handiegirik ez dago oraindino, baina ez duzu uste praka motzak gordetzeko unea dela? Atara gordeta daukazu txupa, look hori aldatzeko unea iritsi da-eta.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Udazken arrastietan, iluntzen duenean, hostoak erortzen dira... Badirudi zu ere erortzeko zorian zaudela. Jan txuleta eta txokolata, energia berreskuratu behar duzu.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Azterketak ala barik, zu beti lan eta lan, ikasi eta ikasi. Baina denerako tartea dago, beraz, hartu atsedena eta zoaz Villabonara Ikasle Eguna ospatzera.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Azkenean erosi duzu makina ziztrin hori eta gelditu barik zabilza ogia egin eta egin, garia merke daukagunez... Proba egizu beste madalena egiten, obsesioak ez dira-eta onak.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Berba eta berba zabilza beti, baina erdia lastoa! Batzuetan isilik egoten jakin eta albokoari entzun behar zaio, hark ere badauka esateko gauza interesgarriak.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Asteotan aurreikusitako bidaia egingo duzu toki exotikoren batera, palmerak, fruta goxoa, edari freskoa eta dantza gura beste. Kontuz ibili krokodiloak, hagin zorrotzak dituzte.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Arazoei aurre egiten hasi zara eta apurka-apurka txikituz doa urtean zehar pilatutako meta pisusua. Zorionak! Segi horrela eta ez etsi, negua luzea izango da-eta.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Azken hilabeteotan gutxienez bost zentimetro hazi zara eta guztiei begiratzen diezu gainetik, baina hori ez da bidezkoa, ez ona. Ken itzazu takoiak, faborez!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Igeriketa? Ingelesa? Pintura? Dantza? Ezin erabaki ibili zarenez orain ez daukazu lekunik inongo ikastarotan. Lasai egon, eros egizu kioskoan saltzen duten horietakoa eta gitarra jotzen ikasiko duzu segituan.



Udazkenean ere euskarari heldu!

euskara



• Maila guztiak ordutegi desberdinetan

• EGA larunbat goizetan

Algortako Etorbidea 104
48991 Algorta - GETXO


Tf. 94 460 66 71

e-mail: j.a-agirre@euskalnet.net

HABEK diruz lagunduta

Anagrama Gurutzatuak

Soluzioen anagramak dira hitz gurutzatu taula honetako definizioak. Hitzak asmatu ondoren, behar bezala ordena itzazu taula osatu arte.



EZKER ESKUIN

- 1 GERTI
- 4 HOREO
- 7 SBI
- 8 LHI
- 9 ZAA
- 10 URKI
- 11 EZTOA
- 14 PIKAO
- 16 HEME
- 18 ELA
- 20 MNI
- 21 ANO
- 22 HAIZE
- 23 NAUSA

GOITIK BEHERA

- 1 BUTA
- 2 ASKOGIA
- 3 HAIRE
- 4 IOLOA
- 5 APO
- 6 ALDEEA
- 12 HANOIDU
- 13 LEGALO
- 15 MARIO
- 16 SMENT
- 17 GAAL
- 19 REI

ez horren gazetxoak < bilatu eta irabazi > gazetxoak

Zein da
Santu Guztien
Eguna?

> Aurrekoaren erantzuna: Urduliz

> Irabazlea: **Araitx Hidalgo***

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Argia**

astekariaren biru bilabeteko
harpidetza doan



*Zein da Bizkaiko
Ikastolen jaia?*

- **Nafarroa Oinez**
- **Ibilaldia**
- **Matrako Eguna**

> Aurrekoaren erantzuna: Izarren distira

> Irabazlea: **Laida Fuertes***

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Berria**

*“zinema etxean haurrentzako DVD
filmen laugarren bilduma”*



Bidalari erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



JON PELI OLEAGA OLABARRIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

GETXOKO ERREFUXIATUAK PARISEN (VERSALLES), 1938

Versalles-eko jauregi eder eta entzutetsuan, ditugu gure getxoizarrak. Ez ziren turismo-bidaian joan hara, Francoren Altxamendu Militarrak (1936-1939) eraginda baizik. Santander izan zuten abiapuntu; handik urteteko itsasontzian ustekabean elkartu ziren Olabarria Torrontegi familiako ama (berak antolatu zuen bere familiako urteera) eta lau seme-alabak, Getxoko Udalak antolatutako talde bategaz. Nantes-en lehorreratu eta Chinon-en espetxe izandako erakinean egon ziren aldi batez beste errefuxiatu askogaz batera. Azkenez Getxoko Udaleko taldea gehi Miren eta Sabin Olabarria nebarrebak Colombes-eko etxe batean bizi izan ziren elkarregaz. Garai horretakoa da argazkia. ○

Miren Olabarria (zuridun andrea, eserita dagoen neskatoaren atzekoa), Loli Calleja (loredun andrea), Aurora Jauregi (loredun andrearen atzean dagoena), Jose Mari Jauregi (eserita dauden artean, erdi-erdikoa); ez dakigu zein lekutan baina badakigu argazkian Maria Jesús San Millán eta Pilar González daudela; Sabin Olabarria ez dago argazkian baina talde honetakoa zen.

Oharra: Eskertuko genuke talde honi buruzko informazioa emango bazenigu (izenak, e.a.).

[aitormenak]

MARIA RIVERO > Siroka

“Egunero erokeria hutsean bizi naiz, sentsazio hori dut behintzat!”

Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Maria Rivero**



Defini egizu zure burua berba bitan.

‘Bai’ eta ‘ez’ dira nire burua definitzen duten berba biak; beti zalantzatan nabil, dena hausnartzen...

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Aktore oso txarra naiz, hobeto nire kasuan protagonistaren papera egiten ez badut.

Aitor dezakezun bizio bat?

Alferrarena egitea.

Animalia izango bazina zein izango zinateke?

Tarantula... bati baino gehiagori bisitatxoa egiteko...

Zer barik ezin zaitezke bizi?

‘Dena da erlatiboa’ esaten dit nebak behin baino gehiagotan, eta egia da, seguruenik bizi ahal izango nintzateke uste dudan askoz gauza gutxiagorekin, bai materialki baita pertsonalki ere.

Musika talderik gogokoena?

Asko aukeratuko nituzke, baina bat aipatzekotan, ‘Izia’ talde frantziarra.

Parrandarik politenak non?

Parrandarik politena egitear dago, oraindik jende asko falta da hemen parranda polit-polita botatzeko!

Zer edo nor eroango zenuke zugaz irla isolatu batera?

Itsasontzi bat.

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena?

Egunero erokeria hutsean bizi naiz, edo sentsazio hori dut behintzat.

Zerk ematen dizu beldur?

Oso beldurtia naiz, beldurraren gizartean bizi gara... beldurrak alboratzeko lanean ari naiz eta horri ere beldurra diot, ene!

Zein galderari ez zenioke inoiz erantzungo?

Pelikula, musika talde edota dana dalakoa hautatzekoei, kar-kar! ○

LABURREAN— Maiatzean ‘Karosi’ bere bigarren lana kaleratu ostean, ‘Hi Vascofona!’ kantaren bideoklipa plazaratu barri dute Siroka musika taldeko lagunek. Erandioko Pepok, Leioako Ekaitzek, Ugaoko Gorkak eta Balmasedako Mariak osatzen dute taldea, eta aurretik hainbat taldetan ibilitakoak dira. Maria Rivero (1979, Balmaseda) ahotsak, esaterako, lau diskotan parte hartu du: Apurka taldeagaz eta Ahaztuak elkarteko hiru diskotan. Musika eta gimnasia ikasketak uztartu ditu, eta egun, ikasitako guztia praktikan jartzeko, ‘Zelaia ikastaroak’ proiektu barria abiatu du. Era berean, Riverok Hutsa taldean parte hartzen du, eta buru-belarri dabil Hutsaren lehenengo diskoa grabatzen. Lan barriaren aurkezpenak abenduaren 2an Balmasedako Klaret Antzokian eta abenduaren 6an Durangoko Azokaren ‘Ahotsenea’-n izango dira.

SARREREN SALMENTA	
1. BARREREN	8 €
2. BARREREN	10 €
3. BARREREN	12 €
4. BARREREN	15 €
5. BARREREN	20 €

SARREREN ZOZKETA

SARREREN SALMENTA: Bertan eta BBKren erotariko kutxazainetan

Antolatzailea: topagunea

Babesleak: BFA DFB, BBK, GARA, Deia, berria, ONDA VASCA, URIBEGOITAKO, URDULIZKO UDALA

Laguntzaileak: SARREREN ZOZKETA

KEROBIA

Azaroaren 11. URDULIZ

KONTZERTURAKO SARREREN ZOZKETA

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO deitu UK bulegoko zenbakira **94 491 13 37** edo bidali mezua uk@aldizkaria.biz eposta helbidera zure izen abizenak eta kontakturako datuak emanaz.



UK Martikoena 16, 2. solairua 1. bulegoa. 48992 GETXO UK 94 491 13 37 • 688 693 195 UK uk@aldizkaria.biz

www.ukaldizkaria.biz

nik ere gure dot

ZURE BIZITZAKO ZAPATURIK ONENAK

Areetako Ludotekak 10 eta 11 urteko gaztetxoentzat prestatu duen zerbitzu berria aurkeztu nahi dizuegu. Hauxe da urritik abendura prestatu dugun egitaraua. Animatzen?

ZIBERJAIA ETA MERIENDA

URRIAK 22

SKATE IKASTAROA

URRIAK 29

SKATE PARKE BATERA JOANGO GARA SKATE IKASTAROA EGITEN JARRAITZEKO

AZAROAK 5

ALGORTAKO "GAUEGUN" GAZTELEKURA BISITA: FUTBOLIN TXAPELKETA

AZAROAK 12

ZINEA

AZAROAK 19

TAILERRA: ESKU-LANEN MARATOIA

AZAROAK 26

IRTEERA

ABENDUAK 3

SUKALDEGINTZA TAILERRA

ABENDUAK 10

PINera IRTEERA

ABENDUAK 17

10-11 urte
badituzu
zeu izan zaitezke
protagonista



ZUREKIN BATERA, ETA DOAN,
AKTORE HAUEK HARTUKO DUTE:
ROKODROMOA, ZIBERJAIA, SKATE, FUTBOLINA,
PINERA BISITA, ETA ABAR.

Pelikularen egilea:

Eskoletako plaza-Plaza de las Escuelas
AREETA-GETXO
T. 94 466 03 55

kukupraka
ludoteka



Getxo
bizi ezazu